




Sopela-Ugeraga klubak hamargarrenez bide egingo dio emakumeen UCI txirrindulari-taldeari. ▶22-23



Txalo taldeak Etxeko saltsak antzezlanak oholzaratuko du, urriaren 19an, Altzagako lehengo azokan. ▶10

hiruka

Uribe Kostako astekaria



106. zenbakia

2017ko
urriaren 11tik
urriaren 18ra arte

«Euskal musikari egin dakioken omenaldirik onena da»

Ez dok hiru! antzezlanak taularatuko du Tartean taldeak, zapatuan, urriaren 14an, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. ▶14-15



AGENDA URIBE KOSTA

Paisaiari begira

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, bisita-gidatuak, ipuin-kontalaria, antzezlanak eta mahai-ingurua egongo dira, egunotan. ▶12-13



HERRIZ HERRI SOPELA

Eskolaraino bizikletaz

Ander Deuna ikastolaraino luzatuko dute Sopelako erdiguneko bizikleta-ibilbidea. Lanek hiru hilabete iraungo dute.

Hilaren hasieran hasi zituzten herriguneko bidegorria Ander Deuna ikastolaraino luzatzeko lanak. Enrique Urrutikoetxea eta Gatzarriñe kaleen arteko bidegurutzean hasiko da bizikletentzako ibilbidea, Olabideko bidegorriari jarraipena emanez. ▶7

ALBUMA PLENTZIA

Plasentzia 1577



▶16-17

Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxeko zuzendaritzak Imanol Landa alkateagaz bilera egitera deitu du. ▶2

Urritik abendura bitartean, askotariko jarduerak egin ahal izango dira Erandion, Zapatutan egitasmoaren barruan. ▶5

Txorierriko igogailua eraikitzeko lanek hilabetea iraungo dute; ondorioz, hainbat aldaketa egingo dituzte inguruan. ▶6

Berangoko Moreaga parkean, jolasgunea estaltzeko prozesu parte-hartzailearen txostena, argitaratuta. ▶8

Lekuz aldatzearen kontra

Ibar nagusien etxea

gaur egun dagoen lekuan mantentzea eskatu du elkarteko bazkideen gehiengoak.

Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxearen balizko lekualdaketa-aren inguruko galdeketa egin zuen Ibar Nagusien Etxea elkarteak joan den urriaren 2an. Horretan, aukera bi ematen zituzten: oraingo lekuan gelditzea ala Romo Kultur Etxe berri-
ra lekualdatzea. Guztira, 540 bazkidek parte hartu zuten galdeketa, «orain arte egindakoen artean parte-hartze handienekoa izan da hori», azaldu dute deitzaileek. Horien arteko % 84ak gaur egungo eraikinean gelditzearen alde egin zuen.

Emaitzak ikusita, Ibar Nagusien Etxea elkarteko zuzendaritza-batzordeak Imanol Landa alkateagaz batzeko deia egin du, lekualdatzearen nondik norakoen inguruan berba egiteko. Horrez gainera, 2017ko apirilean egin-dako udal-akordioa betetzearen «garantzia» nabarmendu zuten, eraikina



Lekuz aldatzearen inguruko galdeketa egin zuen Ibar Nagusien Etxea elkarteak joan den hilaren 2an.

mantentzeko eta konpontzeko. Horren harira, EH Bilduk uste du Getxoko Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) negoziatu beharko lukeela Itzubaltzeta/Romoko Ibar Nagusien Etxea elkarteko zuzendaritzagaz. Izan ere, emaitzak ikusita, «nahikoa izan beharko litza-teke aspalditik datorren gatazka honi EAJk irtenbide negoziatu bat emate-

ko», koalizio abertzalearen arabera. GUK Getxo taldeko zinegotziek ere emaitzak onartu eta zuzendaritza-batzordeak hartutako jarrera babestuko duela adierazi du.

Gehiengoak, lekuan gelditu guran

Ibar Nagusien Etxeko zuzendaritza-batzordeak urriaren 2an egindako gal-

deketa-aren emaitzak ezagutzera eman ditu; horien arabera galdeketa 540 bazkidek parte hartu zuten. Horien arteko 453 boto nagusien etxea gaur egun dagoen lokaletan gelditzearen aldekoak izan dira; oster, 77 bazkidek lekualdatzearen aldeko botoa eman zuten (9 boto zuri eta 1 baliogabekoa egon ziren). ◀

ARRAIN FESTA
PORTU ZAHARRA

12-15 URRIAK 2017

EGUNEKO EKITALDIAK
TALOEN SALMENTA-POSTUA
EUSKAL PRODUKTUEN SALMENTA-POSTUA
IBILBIDE TURISTIKOA
PARAPENTE HEGALDI-BIRTUALA
ITXAS EGURRA HAIZEAREN ERAKUSKETA
ARGAZKI-LEHIAKETA

URRIAK 12, EGUENA
19:00 ARRAIN FESTAREN INAGURAZIOA
19:30/20:30 TAILER IREKIA: ARTISAU GARAGARDOAK

URRIAK 13, BARIKUA
12:00/14:00 UMEENTZAKO SUKALDARITZA TAILERRA
19:00/22:00 PINTXO-POTE JARDUNALDIK

URRIAK 14, ZAPATUA
11:30/16:00 HERRI-MARMITAKOA
12:00/13:00 TXAKOLI-DASTAKETA TAILERRA
19:00/21:00 SARDINA-JANA
14:00/15:00 KALIMOTXOAREN ORDUA, ETXETXUN
20:00/21:00 TAILER IREKIA: ARTISAU GARAGARDOAK

URRIAK 15, DOMEGA
13:00 ARGAZKI LEHIAKETAREN SARI-BANAKETA
14:00/15:00 KALIMOTXOAREN ORDUA, ETXETXUN

BABESLEA
Getxolan

ANTOLATZAILEAK
PORTU ZAHARRA
ITXASBIDE TABERNA
ITXASBIDE RESTAURANTE
ARRANTZALE TABERNA
TXOMIN TABERNA
TXALUPA

LAGUNTZAILEAK
BOGA
Tudis
MAHOU SAN MIGUEL
F. Honsolting

Fadura kirol-parkea diseinatu ahal izateko lehiaketa berria



Aurreko pleguak alboratu, eta beste berri batzuk diseinatu dituzte.

Getxo Kirolakek beste lehiaketa publiko ireki bat iragarri du Fadurako kirol-parkearen herritarren parte-hartze prozesua eta aurreproiektua egiteko. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak deialdia hobetzeko eta prozesuan segurtasun juridikoa irabazteko egindako iradokizunak kontuan hartuta, lehenengo pleguari uko egitea sinatu dute, zerbitzu horiek kontratatzeke beste lizitazio-prozesu bat martxan ipintzeko. Ardu-

radunen arabera, plegu berriei esker, eskaintza «gehiago» aurkezteko aukera dago, aurrez eskatzen ziren balorazio-irizpideak «hobetu» egin direlako «Getxorako estrategikoa» den proiektu horretan. Pauso berri horregaz, aurreproiektu parte-hartzailea diseinatzeko bigarren etapa hasiko da. Herritarrek parte hartu ahal izango dute horretan; horretarako, hainbat jarduera egingo dituzte datozen egunotan. ◀



Ideen sokadantza

GORKA
MOSTAJO GALDUROZ
Gizarte Langilea

Argentinan bakarrik gara Catalunya

Aste zirrargarriak bizi izan ditugu egunkari eta telebistako berrietan. Egoerak behartzen nau honi buruz idaztera: Catalunya. Hau idatzi eta argitaratuko den arte, ez dakit zer jazo daitekeen, baina horren inguruko interesak gora behera, ez dut katalanetan zentratu nahi, euskaldunongan baizik. Erronka handia daukagu aurretik: eta ez naiz independentziaz ari... edo bai. Ni neu abertzalea naiz eta beraz, independentista, baina uste dut erronka handia daukagula aurretik: elkarbizitza eta elkarrekiko konfiantza. Hori gabe, ez dugu izango independentziarik. Hemen, Catalunyako afera politikoki harriak elkarri botatzeko erabili dugu orain arte, eta hor daukagu gakoa: Catalunyan hori egin beharrean, elkarrekin daude. Elkarrekin zeuden «estatut»-a PSCren Govern-pean atera zutenean eta bide horrek «huts» egin zuenean (*cepillado* ostean) elkarrekin jarraitu zuten bide berriak jorratu nahi zituztenek. Hala daude gaur egun. Hemen ez. Euskadin bizi garenon artean hausturak sortzera kondenatu gaituen terrorismoa sufritu izan dugu, eta zorionez egoera aldatu den arren, elkarrekiko konfiantza eta kultura demokratikoa sendotu beharrean gaude. Kanpoaldean bakarrik gaude batera euskaldunak. Horra izenburuaren gakoa. Argentinako euskal komunitatean argi eta garbi jorratzen dute hemen jorratu beharko genukeen bidea. Euren Argentinako ika-mika politikoak euskal etxetik kanpo uzten dituzte, eta euskal etxe barruan alderdikeriak alde batera uzten dituzte, eurak herriarekiko maitasunak batzen baititu. Beraz, hemen, ez dezagun parlamentura eta Gobernura jo aurreratzen ez dugunean eta galde diezaiozun geure buruari norekin aurreratu behar dugun hura iraindu baino lehen: Visca Catalunya lliure eta gora euskal argentinarrak! ◀

Getxo

Berbalagunak, martxan

Euskaraz mintzapraktika egiteko taldeak batzen hasiko dira urrian; horrez gainera, talde berriak sortzeko izen-ematea egin ahal izango da hilabete osoan.



Astean ordubetez elkartzeko konpromisoa dute talde denek.

Iaz, Getxon, 200 lagun inguruk parte hartu zuten Berbalagun egitasmoan, 21 taldetan banatuta. Urrian, talde horiek martxan ipiniko dituzte eta, modu berean, talde berriak sortzeko izen-ematearen epea zabaldu dutela iragarri du Egizu Getxo Euskaldun! elkarteak. Egitasmoan parte hartu gura duten gizon-emakuek taldeak osatu eta horiek azaroan martxan ipiniko dituzte. Hala, berbalagun berriei ondoetorria egiteko afaritxoa prestatuko dutela iragarri dute antolatzaileek.

Berbalagun egitasmoa euskaraz gehiago hitz egin gura duten lagunak elkartzeko da baliagarria, baita ikasitakoa ez galtzeko edo hobetzeko ere. Horretan parte hartzeko, euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko konpromisoa hartzea dira beharrezkoak, besterik ez. ◀

izen-ematea: egizugetxo@gmail.com / 619 935 541

Urriaren 28an egingo dute 18. Indabada jaialdia, Algortan

Hitzordua aspalditik ipinita dagoen arren, Indabada jaialdiaren 18. ekitaldia prestatzeko bilerak egingo dituzte oraindik. Joan den irailaren 17an, udalerriko hainbat gazte batzen hasi ziren Algortako San Nikolas plazan, datorren urriaren 28an egingo den indaba-jana antolatu guran. Oraindik, hitzordurako aste bi falta badira ere, jaialdia «mundial» izateko ha maika kontu daude antolatzeko. Hori dela eta, bileretara hurreratzeko eta beharrezkoa den denean laguntzeko deia egin dute gazteek, «herriarena den eguna, herriak auzolanean sor dezan». Hurrengo hitzordua hilaren 15ean ipini dute, 19:00etan, San Nikolas plazan. ◀

Mugetatik Haratago-n parte hartzera deitu du Udalak

Alboan GKEak martxan ipinitako Mugetatik Haratago sentsibilizazio-programan parte hartzeko aukera izango dute Getxoko ikasleek egunotan. Programa horrek lekualdatze behartuen prozesuak eta errefuxiatuen errealitatea landu gura ditu. Horretarako, ikasleek beren heziketa Azpeitiko Loiola santutegian izango duten hiru eguneko egonaldiagaz osatuko dute. «Nahi duguna da ikasleek ihesak, igarotzeak, heltzeak eta harrerak suposatzen dutenarekin enpatia izatea, beraien bitartez beren familiengana eta Getxo osora ailegatzeta, eta baita abegi eta harrera eragile bihurtzea ere», azaldu du Mary Tere

Guzmánnek, Alboan elkarteko Ekintza Publiko eta Partaidetzako arduradunak. Aixerrota institutuko 80 irakasleek parte hartu zuten ikasturtearen hasieran programaren heziketan, eta edukiak ikasgeletan landu ostean, orain, DBHko 3. mailako 80 bat ikasleek aukera izango dute hiru egunetan, Loiolan, errefuxiatuen eta etorkinen eta disparekotasun globalen errealitatearen bizipenetara hurreratzeko.

Egitasmo horretan parte hartu gura duten ikastetxeek Getxoko Udalako Immigrazio eta Kultura-artekotasuneko Unitateagaz edo Alboan GKEagaz harremanetan ipin daitezke. ◀

info+: www.getxo.eus

San Nikolas
IKASTOLA

San Nikolaren denok gara gu!!!

Hezkuntza integrala **Demokratikoa**
Euskalduna **Autonomia**
Plurala **Hezkuntza eta kudeaketa ereduak**

Arene azpi, 15 • 48991 Algorta - Getxo
Tel: 944 305 478 • ikastola@sanikolas.com • www.sanikolas.eus

portu zaharra bar

Portu Zaharra Kalea 35
48991 Algorta-Getxo
Tf. 94 464 29 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Getxo

Zirikatzeko Eguna egingo dute urriaren 14an, Algortan

Urriaren 12an, Hispanitatearen Eguna eta Guardia Zibilaren Eguna ospatu ohi da. Horren aurrean, Algortatik Hanka indar errepresiboen kontrako mugimenduak Zirikatzeko Eguna egingo du hilaren 14an, zapatuan. Egurdiko 12:00etan ipini dute hitzordua, Algortako Telletxe plazan. Ondoren, bestea beste, San Nikolas plazatik abiatutako poteoa eta herri-bazkaria egingo dituzte; azken hori Katea tabernagunean, 8 euroan. Horren ostean, manifestazioa abiatuko dute Telletxe plazatik, 18:30etik aurrera. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ibilaldia zaratatsua izango da: «oihukatzegatik isunak jartzen badizkigute... egin dezagun zarata!». Izan ere, aurreko hainbat alditan isunak jaso izan dituzte mota horretako elkarretaratzetan, Guardia Zibilaren kuartaletik igaro ostean. Azkenik, jai giroan kalejira egingo dute kalerik kale, 20:00etatik aurrera. ◀



Negurin ipini gura izan dute sistema hori.

Zaborra batzeko atez ateko sistema deitoratu du PPK

Getxoko Udalak Negurin eta Zugarten martxan jarri gura izan duen zaborra batzeko atez ateko zerbitzua deitoratu du Getxoko PPK. Popularren arabera, inguru horietako hainbat auzokide neurri horren kontra agertu dira, «zabor-batzearen edozelako aldaketaren kontra daude auzokideak», dio PPK. Bestalde, edukiontzia marroiak kentzea ere eskatu dute popularrek, «ia-ia ez direlako erabiltzen, eta horien erabilera gaizki egiten delako». Horrez gainera, udalerrian edukiontzia «gehiegi» daudela deitoratu dute, «auzokideei enbarazu eginez». ◀



Algortako etorbidea berritzeko proiektuaren lehenengo faseko lanak hasi dira.

Algortako erdigunea, obrez gainezka

Herriaren erdigunea berrurbanizatzeko eta inguruko hainbat kale hobetzeko proiektuak abiaraziko dituzte laster.

Algortako etorbidea berritzeko proiektuaren lehenengo faseko lanak hasi dira, Telletxe eta Torrene kaleen arteko zatian. Behar horiek egiteko epea 16 astekoa izango da. Lurpeko edukiontzia ipintzeko indusketa-lanak abiatuko dira, Telletxe kalea eta Algortako etorbideko tartean. Lan horien ondorioz, zati horretan dauden ilarako aparkalekuak kendu egingo dira ibilgailuen zirkulazioa bertatik desbideratzeko. Horrez gainera, Basagoiti eta Algortako etorbideen arteko jardinera-horma birmoldatzeko lanak hasi dituzte. Hala, Karitate eta Juan Bautista Zabala kaleen bitartean altzifreak eta arkupeak kenduko dituzte, jardinera berriak jartzeko. Ondoren, lanok Aretxondo kaleraino jarraituko dute. Era berean, hornidura-sarea eta kanalizazioak egiteko lanak egingo dituzte Torrene eta Tangora Etxeko plazatxo arteko zatian. Bitartean, saneamendu- eta euri-uren sareak eraikitze lanak egiten ari dira,

Andres Cortina eta Torrene arteko eskuineko erreian.

Salsidu eta Bolue kaleak

Algortako Salsidu etorbidea eta Bolue kalearen arteko bidegurutzean bide-sarea berrantolatze lanak egingo ditu Udalak. Horrez gainera, ingurua berrurbanizatzeko lanak egingo dituzte. Proiektu hori honako programa honetan jasotzen da: «Getxo txukun. Auzoz auzo, kalez kale». Gobernu-taldeak babestutako programa da hori, auzotarren iradokizun eta proposamenak jasotzeko erabili izan dena. Lanok laster hasiko dira, eta horiek amaitzeko epea hilabete bikoa izango da; aurrekontua 170.000 eurokoa da.

Inguru hori ibilgailuen zirkulaziorako bidegurutze bat izatetik oinezkoa protagonista izango den gunea izatera pasako da, «seguruagoa eta erosagoa», azaldu du Imanol Landa alkateak. Helburu horretarako, biribilgune obalatu bat eraikiko dute kale bi horien arteko konexioan. Erdiko gunea urbanizatuko da eta Bolue kalea Salsidu etorbidea, Villamonte eta Villaondoe-tagaz elkartzen den lekuetako espaloi-lerroetan aldaketak egingo dira. Horri esker oinezkoen zirkulaziorako baldintzak hobetuko dira, erdiko gunean ez ezik bertako sarreretan ere. ◀



Ideien Trafikoa

SANTIAGO SAINZ ROBLES
Ciudadanosen bozeramailea
Getxoko Udalean

Administrazioa, Fafner-en kobazuloa?

Germaniar mitologiak dio Fafner herensugeak bere kobazuloan altxor mardikatu bat gordetzen zuela, hori ukitzen zuena betiko damutuko zela. Kondairaren herensugeak Getxoko errealtatean badu pareko bat: EAJ. Norbaitek aurrekontuetako diru sarrerak ukitzen dituen bakoitzean ogasuneko herensugea oldartzen zaio sua botatzen. Hau da Udal Gobernuaren jarrera. Getxon denok dakigu ordaintzen diren zerga eta tasak oso altuak direla; Cs alderdiaren interesa da errealtate hori aldatzea, gure DNAn baitago zergak jaitea dirua egon behar den lekuan egoteko: herritarren poltsikoetan. Hori dela eta landu genuen Udal Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga berri bat, progresiboagoa, etxebizitza gehien, industriaren eta merkataritzaren karga-tasak jaitsiko zituen. %100eko diru-bilketa ziurtatuko genuen progresibitateari esker. Ez digute kasurik egin. Hiritik gabtuzanean ikus dezakegu zergatik den hain garrantzitsua zergak jaitea: gure kaleek bizitza behar dute, horretarako jendea etxetik atera behar da. Hori lortzeko, proposatzen dugu: jendeari eta merkatariei ordaindu beharreko zergak murriztea. Espainian 3 milioi autonomo ditugu eta estatuko enpleguaren %30a sortzen dute. Madrilen lortu ditugun hobekuntzak oso garrantzitsuak dira aberastasuna handitzeko, lanpostuak sortzeko ere bai. Hobekuntza gehienak flexibilitateari buruzkoak dira, baina baita ere autonomoek ordaindu behar duten 50 euroko tarifa plana denboran luzatu ahal izateaz. Errenta baxuena dutenentzat PFEZ jaitzea lortu dugu; beraz, herritarren presio fiskala gutxitu 2018rako. Azken urteotan erdi mailako jendeak mantendu behar izan du krisiaren pisu gehiena; gure us-tez heldu da hori gelditzeko garaia eta administrazioaren herensugeari aski dela esateko. ◀



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!



Santa Eugenia Kalea 13
ERROMA

Erendio

Bueltan da Zapatutan

Urritik abendura arteko zapatuetan askotariko euskarazko jardueraz gozatzeko aukera egongo da, auzoz auzo.

Familia-giroan ondo pasatzeko tailerrak antolatuko ditu Erandioko Udalak, urriaren 21etik abenduaren 16ra arteko zapatu denetan. Ekintza guztiak lau urtetik gorako umeak dituzten familiei zuzenduta egongo dira eta euskaraz garatuko dira; hori dela eta, antolatzaileek jakinarazi dute umeakaz doazen helduek euskaraz komunikatzeko gai izan behar dutela, «tailerretako harreman-hizkuntza bakarra euskara izango baita». Ume bakoitza heldu bategaz egon ahal izango da tailerrean, gehiezez. Ostera, heldu bakoitzak hiru umeen ardura eduki ahal izango du.



Askotariko jarduerak egingo dituzte, berbarako Zirika Zirkusen antzerkia. © ANDER LANAS

Jarduera denak zapatuetan izango dira, 17:00etatik aurrera. Egun bakoitzean tailer mota bat egingo dute, eta, horren arabera, Altagako ludotekian, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean eta Erandiogoikoko gizarte-etxean egingo dira. Horietan denetan

parte hartu ahal izateko alde zuretik izena ematea beharrezkoa da. Horretarako, udalaren euskara-zerbitzuaren webgunera jo beharko da. Leku guztiak beteko balira, tailer bakoitzeko lekuak zozketa bidez banatuko dituztela ohartarazi dute arduradunek. ◀

Hispanitatearen egunean, Altzaga ikastola, zabalik

Urriaren 12an, egunean, Hispanitatearen eta Guardia Zibilaren Eguna ospatzen da espainiar Estatuko leku askotan. «Euskal Herrian jaiegun arrotza» delakoan, Erandioko Altzaga ikastolak zentroa zabaltzeko erabakia hartu du, «egutegi propio baten alde egiteko asmoz». Hala, bertoko irakasle batzuek jakinarazi dutenez, «jai arrotz horri planto egiteko jarrera hartu» eta «aldarrikapen eguna bihurtzeko» eguna bilakatuko dute eguna; horren bidez, inguruko eskoletan ere eragiteko asmoa dute antolatzaileek. Horretarako, goizean hainbat tailer eta ekintza egingo dituzte ikastolan bertan, 11:00etatik 13:00era. Ondoren, egitarauari amaiera emateko kalejira egingo dute auzoan, kalerik kale, aldarrikapenaren nondik norakoak erakutsi guran. Azaldu dutenez, elkarlanean garatuko dute egitaraua irakasleen, begiraleen eta bestelako langileen, familien eta herriko eragileen artean. ◀

Berdeguneak atontzera bideratu dituzte 782.000 euro

Luberri Bazolanak enpresa ardura-tuko da berriro ere Erandio udalerriko lorategiak eta berdeguneak mantentzeaz. Hala jakinarazi du Udalak, lehiaketa publikoa egin ostean. Kontratu berriak lau urteko iraupena izango du, eta beste urte bi luzatu ahal izango da; urteko aurrekontua 781.439 eurokoa izango da. Esleipena EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoak eraman dute aurrera; beste alderdi denek kontra egin zuten. Kontratu berriaren arabera, enpresak ureztatze automatikoaren 2.000 metro koadro eta 10 zuhaitz-unitate ezarri beharko ditu, urtero. Gainera, sentsibilizazio-, komunikazio- eta analisi-kanpaina bi



10 zuhaitz landatu beharko dituzte urtero.

egiteko konpromisoa izango du Luberri Bazolanak enpresak, udalerriko auzokideen gogobetetasun maila jakiteko. Lan horiek denak enpresakoak eta udalerriko auzokideak diren 11 behar-ginek egingo dituzte. ◀

Erandioztar bat, zibersegurtasun arduradun berria

Francisco Javier Diéguez Barriocanal erandioztarra aukeratu dute Eusko Jaurlaritzaren Zibersegurtasun Euskal Zentroa zuzentzeko. Zeregin handi bi ditu zentroak: bata, EAE Europako erreferentzia bihurtzea informazio- eta komunikazio-teknologia berrien aplikazioan; bestea, euskal industriari eta azpiegitura kritikoei estaldura eraginkorra eta fidagarria ematea, prebentzio eta erreakzio lanak eginez zibermehatxu edo ziberrerasoei erantzuteko. Diéguez Ingeniaritza Informatikoan lizentziaduna da, Deustuko Unibertsitatean ikasia; esperientzia zabala du zibersegurtasun-arloan eta IKTen sektorean jardun du 20 urtetik gora. ◀

Ikasturte berrirako haur- eta gazte-gida argitaratu du Udalak

Ikasturte honetan, umeei eta gazteei zuzendutako udal-jarduera denak batzen dituen gida kaleratu du Udalak. Horretan, honako hauek aurki daitezke: egingo diren programa denak; noiz eta non egingo diren; nori zuzenduta dauden; eta, zelan ipini harremanetan antolatzaileakaz, interesa izanez gero. Informazioa eta gida bera Erandioko Udalaren webgunean lor daiteke; gainera, 0 eta 18 urte arteko neska-mutilak bizi diren etxebizitzaren bidariko dute, liburuxka formatuan. Arduradunek jakinarazi dutenez, urtero berrikusten dute gida; hala, iradokizunak izanez gero, horiek jakinaraztea eskatu dute. ◀

OSABIDE Hertz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18-48930-ERROMA-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

prentsa • aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Leioa



Aurreikuspenen arabera, urtebete barru erabili ahal izango da igogailua.

Txorierriko igogailua egiten jarraitzen dute

Fase berriko lanek lau hilabete iraungo dute; tarte horretan, hainbat aldaketa egongo dira inguruan.

Txorierriko igogailua ezartzeko hurrengo faseko lanak hasi zituzten joan den urriaren 2an. Aurreikuspenen arabera, lanok lau hilabete iraungo dute. Denbora tarte horretan, beharrek eraginda, hainbat aldaketa edo ondorio egongo dira inguru horretan, berbarako Txorierriko 10, 24 eta 24 zenbakien aurrean dauden aparkalekuak makina eta obra-ibilgailuentzat mugatuko dira. Bestalde, Ramon Rubial plaza eta Lamiakotik Txorierrira igotzen duten eskaileren erabilera mugatuko dute obrek irauten duten bitartean. Ostera, igogailuaren lizitazio-lanetan dabil daborduko Udala, orain hasitako fasea amaituta igogailua ipintzeko moduan egoteko asmoz. Udal-ardura-

dunek gogoratu dutenez, Txorierriko igogailu hori auzoaren eskaera «historikoa» da, «Txorierra eta Lamiako auzoen arteko mugikortasuna nabarmen hobetuko duena, eta garraio publikoarekin zuzenean lotuko duena Txorierra (Metro Bilbao eta Bizkaibusarekin), Leioarekin eta Bizkaiaarekin loturak hobetuz», azaldu dutenaren arabera.

Gaur egunera arte, inguru horretan egindako lanak izan dira gune horretan dauden goi-tentsioko kableak lurperatzeko. Ostera, orain hasi dituzten lanak eremuaren oinarritzko urbanizazioari dagozkionak izango dira, «urbanizazio hori igogailua jartzeko beharrezkoa da», azaldu du Iban Rodriguez Etxebarria Hirigintza zinegotziak. Lanok lau hilabeteko iraupena izango dute, eta, ostean, igogailua bere horretan eraikitzeko eta ezartzeko obrak hasiko dituzte. Azken horiek 8 hilabete ingurukoak izango dira. Horrenbestez, urtebete inguru barru egongo litzateke igogailua erabiltzeko moduan. ◀

Bakearen kultura sustatzeko kontaktak

Hitzaren Zuhaitza egitasmoan, euskarazko ipuin-kontalariak behar dituzte; inskripzioa, zabalik.

Aurton ere, Hitzaren Zuhaitza egitasmoa antolatzen jarraitzea erabaki du Leioako Udalak. Horren bidez, herritar boluntarioen sarea bultzatu gura dute, umeei bake-kulturaren balioak transmititzeko eta umeakaz batera lantzeko, ipuinen birtartez. Daborduko, gaztelaniazko taldea osatu dute; ostera, euskarazko taldea osatzeko, hainbat ipuin-kontalari boluntario behar dituzte oraindino. Horretarako izen-ematea zabalik izango du Udalak, urriaren 19ra arte. Ahozko euskara-maila «nahikoa» izatea baino ez da beharrezkoa zeregin horretarako; izan ere, ipuin-konta-



www.ipuinkontaktak.tk © HITZAREN ZUHAITZA

lariak trebatzeko hainbat saio egongo dira, zapatuetan, Mendibile Jauregian. Lehenengoa urriaren 21ean izango da, 10:00etatik 14:30era. Ostean, ipuin-kontaktak saioak egingo dituzte, udalerriko ikastetxeetan eta Ipuin-kontaktak Maratoian, Gabonetan, Kultur Leioan. Parte-hartzaile bakoitzak gutxienez hiru emanaldi egiteko konpromisoa bete beharko du. ◀

izena emateko: hzleioa@gmail.com

Behargintzako urriko ikastaroetan izena eman daiteke

Udalerriko langabeen beharritzei erantzuteko ahaleginean, hainbat tailer eta ikastaro antolatu ditu Leioako Behargintzak, abendura bitartean, nortasun-profesionala lortu edo egiaztatzeko. Hala, urriaren 1le-apaindegiko laguntzailearen Profesionaltasun-ziurtagiria eskuratzeko 210 orduko teoria eta 120 orduko praktikak eskainiko dituzte urriaren Fernando zentroan. Horrez gainera, lana bilatzeko (lau ordu) eta informatikarako hastapen (30 ordu) tailer bana emango dute KZ Gunean; horietan denetan izena eman daiteke daborduko. Azaroan eta abenduan bestelako tailerrak eskainiko dituzte. ◀

info+: behargintza@leioa.net

Perseo zineforumean, arabiar herrialdeei lotutako filmak

Arabiar herrialdeei eta Irani lotutako pelikulak proiektatuko dituzte hilabete honetan Kultur Leioako Perseo Zineforumean. Horietan denetan, Egipto, Maroko, Tunisia eta Irani buruzko istorioak ikusi ahal izango dira, besteak beste, gaur egungo gaiak lotutakoak denak. Joan den urriaren 3an hasi zituzten proiektzioak *El viajante* pelikulagaz. Hilaren 10ean, berriz, *Hedi. Un viento de libertad* ikusi ahal izan zen, eta datozen egunotan *Clash*, *Taxi Teherán* eta *Los Caballos de Dios* filmak egongo dira ikusgai, hilaren 17an, 24an eta 31n, hurrenez hurren. Azaroan, berriz, espainiar Estatuko lau zuzendariri lotutako zikloa egingo dute. ◀



Sekula Betikotik

ITXASO PAYA RUIZ
Sortzailea

AmnHesiak eta oroitzapenak

Amnesia memoria galdu edo ahultzea da. AmnHesia, aldiz, nork bere memoria galdu edo ahularaztea, hesia jartzea. Gure amama Alzheimerrek jota egon zen hainbat urte; AmnHesia inposatua; ez zituen gure izenak oroitzen, ezta zeruaren kolorea ere. Antzeko zerbait aitarekin; itsasgizona zen eta denbora gehiago ematen genuen bere zain, berarekin baino. Orain, berriz, ez da bere Rotterdameko gutunik iristen ... Amamaren «¿Y tú quien eres?» hura zein aitaren zain emandako orduak Oroitzapenak badira ere, nik neuk nahiago dut oroitu, bideak nor egin bainau. Hala ere, norberak erabakitzen ditu bere AmnHesia eta Oroitzapenak. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

BETIKO
IKASTOLA

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Sopela

Bidegorri berria egiten hasi dira

Ander Deuna ikastolaraino luzatuko dute Moreaga eta Gure Toki inguruen arteko gaur egungo bizikleta-bidea. Lanok hiru hilabete iraungo dutela iragarri dute.



Bidegorriaren zati berria egitera 277.975,59 euro bideratuko ditu Udalak.

Sopelako Udalak urriaren hasieran abiatu zituen herrigutietatik ateratzen den bidegorria Ander Deuna ikastolaraino luzatzeko lanak; «sopeloztarren aspaldiko eskaera da», udal-arduradunek nabarmendu dutenez. Moreaga eta Gure Toki inguruen arteko gaur egungo bizikleta-ibilbidea Ander Deuna ikastolagaz lotuko dute bide eta espaloi berriek; «ondo seinaleztatua eta erraz identifikatzeko moduan egongo da herriarrentzat, bereziki eskola-umeentzat, eta udalerriko bisitarientzat», azaldu dutenez. Lanok hiru hilabete iraupena izango dute; 277.975,59 euroko inbertsioa ekarriko dute, eta horri esker gaur egungo espaloien barruko aldean (lotuneetan izan ezik) bizikleten erabilerarako bide bat sortuko dute. Hau da, oinezkoen ibilbidearen aldamenean, azalera berri bat sortuko dute, lurra hondeatuz. Bi-

zikleta-bideak hiru metroko zabale-za izango du; espaloia berriz, ez dute aldatzeko asmorik; 1,90 eta 2 metro artekoa da. Bidegorriak 600 metroko luzera izango du, eta Enrique Urrutikoetxea eta Gatzarriñe kaleen arteko bidegurutzean hasiko da, Olabideko bidegorriari jarraipena emanez.

Gontzal Hermosilla Sopelako alkatearen berbetan, «udalerriko bizikleta-planaren garapenean aurrerapauso bat gehiago dira» oraingo lanak. «Neurri honek bizikletaz ikastolara joaten diren ikasle eta irakasleen segurtasuna hobetu eta bermatu gura dugu; izan ere, ematen du bidegorri berri honek ikastetxeak egunero jasotzen duen ibilgailu-kopurua nabarmenki murriztuko duela» gaineratu du. Denok Batera talde politikoarentzat, ordea, «oso arriskutsua» da Ander Deuna ikastolarainoko bidegorriak izango duen ibilbidea. ◀

Sopelbusek neguko ordutegia dauka urriaren hasieratik

Sopelako auzoak metro-geltokiaz eta hondartzakaz lotzen dituen autobusak neguko ordutegia dauka urriaren 2tik. Aurtun, astelehenetik barikura ibiliko da, 07:00etatik 20:45era arte, jaiegunetan izan ezik. Eguerdian atsedena hartuko dute. Hala, bi ibilbide egongo dira; daborduko Udalaren webgunean kontsulta daitezke. Horrez gainera, 07:30etan eta 15:00etan Ander Deuna Ikastolan geldituko den zerbitzu berezia eskainiko du Sopelbusek. Salneurriari dagokionez, bidaia bakoitzak 0,30 euroko kostua dauka; 25 bidaiatarako bonoa berriz 5 euroan dago, eta 50ekoa 8 euroan. ◀

info+: turismo@sopela.eus / 944 065 519

Bisitarien kopuruak nabarmen egin du gora, aurtengo udan

Sopelako Turismo Bulegoak 11.554 bisitari erregistratu ditu, uztailean eta abuztuan: 5.631, Loiola Ander Deuna kalean dagoen egoitzan; 5.923, informazieguneetan. Joan den urtekoak baino 2.189 pertsona gehiago dira, udal-arduradunek nabarmendu dutenez. Gainera, aurtun, lehenengo aldiz, informaziegune bat ipini dute hondartzan; bertan, 2.500 pertsona baino gehiagori arreta eman diete. Sopelara bisita egin duten turisten jatorriei dagokienez, Kataluniatik eta Madrildik etorri dira gehienak; horiez gainera, Frantziako, Ingalaterrako, Alemaniako eta Italiako lagunak ere egon dira Sopelan aurtun. ◀

Genero-ikuspegitik aztertuko dituzte udalerriko jaiak

Genero-ikuspegitik, herriko jaiak aztertu ahal izateko diru-laguntza eman dio Emakundek Sopelako Udalari: «festetako ekitaldietan emakumezkoek eta gizonezkoek berdintasun-egoeran parte hartzen duten» ikuskatu gura dute agintari sopeloztarrek. Ildo horretan, herritarrek eta jai-batzordeak berak «hausnarketa egin dezan» gura dute. Aztertuko dituzten gaien artean, herriko jaietan ematen diren jazarpeneko eta indarkeriazko egoerak kontuan hartuko dituzte. Horrez gainera, «Sopelan daukaten jaien eredia egokia den edo ez» begiratu gura dute; jai parekideak lortzeko asmoz, herritarrek dauzkaten iritzia



Emakunderen diru-laguntza jaso du Udalak.

batuko dituzte. Emakumeen diskriminazioa saihesteko balioko omen dute azterketa egin ostean proposatuko dituzten ekintza konkretuek. Ikerketaren emaitzak 2018ko urtarrilean argitaratuko dituzte. ◀



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaiastola.eus

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarriñe z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH
Service
Car Service

Zure bila gabiltza!

Egin zaitez
hirukalagun,
txanpon
baten truke!



Ipini gugaz harremanetan: 944 911 337
administrazioa@hiruka.eus



Txirristan

MAITE
MENTXAKA TENA
Ikerkuntza ikaslea

Erantzun berriak sortuz Shock egoeretan

Hondartzan zaude, lagun batekin hizketan. Buelta ematen duzu eta ... A) *Barki Barkilloak* bueltatu dira?... Zoragarria nola esnaten diren oroitzapenak usainen bitartez! B) Txoritxu bat hondarrean bainatzen dabil. Txolarrea da, bere lumetako intsektuak kentzen dabilena. D) Bi metro-tara kokatutako gizonezko bat, zure gorputzari argazkiak ateratzen dabil... Oihal batean bilduta disimuluan.

Egoera errealak. Deseroso eta desagokiak izan daitezkeen uneak tarteka ere. Kontu handiz hurbildu zara errespetuz argazkiak ezabatzeko eskatuz, ez du deus esaten eta motxila eskuan hartuta korrika joan da dunetatik zehar, gutxi batzuen txistuekin.

Baina oraingoan, ez dadila eguna birrindu. Ez, mesedez.

Jada gezurtua sentitu zara, inbaditua. Sentipen horiek azkar kendu nahi izateko behar bizi eta indartsua sentitu dezakezu. Gehienetan hain da lekuz kanpoko egoera zeinen ezin duzu sinetsi eta ikusitakoa kolokan jar dezakezu. Gehienetan ihes egiten dute, hori da hurbilekoen esperientzia. Anekdotak gisa geratu daitezkeen momentuak.

Baina egoera hauei nola erantzun? Konkretuki, hori galdetu genion gure buruari aurrekoan. Horrelakoei erantzuteko kontzientzia lantzeko beharra. Are azkarragoak izan gaitezkeela sinesten dugu, positibitate osoz bizitzak ditugun erreminta ikaragarriak azpimarratuko ditugu: Umorea, sormena, ironia... besteak beste. Ez gaude bakarrik eta ezintasun egoerek erantzun berriak bilatzen dituzte. Azkenengo esperientziak honako ideiak sortarazi zuen: arratsaldea pasa pintxo potean gorputz biluzien marrazkiak eginez, «Alirón Al Mirón» lelopeko proiektua sortuz.

Gure barreak *Shock* egoerei aurre egin diezaike. Eta mar txan dira. ◀

Berango

Proiektuari erantzuten

Moreagako jolasgunea estaltzeko prozesu parte-hartzailea egin zuen, eta, orain ondorioak argitaratu ditu Udalak.

Moreaga parkean dagoen umeentzako jolasgunea estaltzeko prozesu parte-hartzailea egin zuen Udalak, herritarren iritziak eta proposamenak jasotzeko; horren ondorioak argitaratu berri ditu. Parte-hartzearen emaitzak jakinarazteaz gainera, prozesuaren emaitzak eta udal-erantzunak plazaratu ditu. Udalerriko 112 auzokidek parte hartu zuten prozesuan eta, 236 ekarpen egin zituzten, guztira. Iritzi-emate horiek denak modu askotan egin ahal izan zituzten herritarrek: zuzenean parte-hartzeko ipinitako informazio-karpetan, edo udaletxera bideratutako eta online bidezko galdetegi bitartez.

Egindako ekarpen eta balorazio denei erantzuna eman gura izan die Udalak txosten horretan. Hala, jolas-teko txinbo edo zabu gehiago eskatzen zituztenei erantzunez, Udalak jakinarazi du gaur eguneko zabu bi-koitza hirukoitz bategatik ordezkatzeara aztertzen dabilela. Ostera, azaldu du gehiago ipintzea ez dela bideragarria; modu berean, gogoratu du beste adin batzuei begirako jolasguneak daudela udalerriko beste parke ba-

Txostena, osorik: www.berango.net

tzuetan. Horrez gainera, jakinarazi du argiteria hobetu duela, segurtasuna hobetze aldera. Parkearen estalguneari dagokionez, desmuntagarria den sistema bat dago iparreko aldea ixteko, neguan bakarrik ipiniko dutena. Gainera, gogorarazi du hormigoizko banku berriak txikientzako hesizat baliagarriak direla. Era beran, egoera txarrean zeuden bankuak ordezkatu dituzte, estalgunearen barruan egoteko. Bestalde, hainbat auzokidek parkean komun publikoak jartzea eskatu dute; horren harira, Udalak jakinarazi du aukera dagoela ondoko eraikinean lagatze bat eskatzea etorkizunean

hori egiteko. Gainera, Moreaga parkea gehiagotan garbitzeko aukera aurreikusten du Udalak. Parkea hobetzeko gomendio eta eskaerez gainera, hainbat auzokidek estalgunearen kontrako iritzia ere helarazi diote Udalari, estetikoki negatiboa delakoan. Inguruari bestelako erabilerak emateko aukera ere aurreikusi du Udalak, barbarako aldizka janari-kamioi ibiltariak ezartzea inguruan. Moreaga parkeko jolasgunea estaltzea herritarrek aspalditik egindako eskaerari erantzuteko egin dutela jakinarazi du Udalak. Hala, udalerrian estalita dagoen umeentzako jolas-parke bakarra da hori. ◀

Paisaiek izandako aldaketak antzeztuko dituzte Antzokian

Bizkaiko paisaien eraikuntzari begirakoak dira aurten Ondarearen Europako Jardunaldiak. Hori dela eta, hainbat ekimen egongo dira egunotan Berangon. Berbarako, Burdin Hesiaren inguruko *Hormigoizko paisaiak* izeneko erakusketa dago Berangoeta kultur etxean.

Hurrengo saioan, hilaren 14an, zapatuan, Berangoko paisaiaren bilakaera irudikatuko du Txirlora-ACADAE antzerki-taldeak, askotariko garaietako pertsonaiak ekarriko ditu gogora. Pertsonaia horiek modu dibertigarri eta didaktikoan udalerriko paisaiak mendeetan jasan dituen aldaketak azalduko dituzte, besteak beste. Garai desberdinetan hazten ziren landa-

izen-ematea: berangokultura@berango.net

reak eta loreak, garai desberdinetako bizimoduak eta baserritarrek beraien ortuetan landatzen zutena erakutsiko diete egun horretan 19:00etan Berango Antzokira hurreratuko diren gizon-emakume denei. Lekuak mugatuak izango dira, hortaz alde zuretik izena ematea gomendatu dute. ◀

Emakumeentzako autodefentsa-tailerra, urriaren 28an

Uribeko Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Berdintasun Sailak emakumeentzako autodefentsa-tailerra antolatu du. Saioa datorren urriaren 28an izango da, zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era, Berangoko Emakumeen Elkartearen egoitzan. Denbora tarte horretan, ikastaroan parte hartuko duten emakumeek erabiltzeko errazak eta eraginkorrak diren teknikak ikasiko dituzte. Horrez gainera, lan psikologikoa, ahalduntzeko gaitasuna eta autostimua garatzeko ariketak landuko dituzte. Modu berean, elkartasun-sareak osatzera deituko dute. ◀

Harremanetarako: 946 579 282
berdintasuna@uribekosta.org

Uribe Kosta

Gastronomiaz gozatuz

Uribe inguruko

gastronomia ezagutzeko hainbat jardueratan parte hartzeko aukera dago egunotan, hilaren 31ra arte.

Uribe Urri Gastronomikoa-ren bosgarren edizioa hartuko du eskualdeak hilabete honetan. Hala, hilaren 31ra bitartean, menu bereziak, bisita gidatuak, ekitaldi gastronomikoak, tailerrak eta dastaketak egin ahal izango dira eskualdeko hainbat txokotan. Egitasmo horretan parte hartzen dute Lemoiz, Gorliz, Plentzia eta Urduliz udalerrietako askotariko establezimenduek, baita Bariko, Sondika, Mungia, Fika eta Marurikoak ere. Hala, leku horietako hainbat jatetxe eta hotelek menu bereziak eskainiko dituzte egunotan. Bestalde, lekuko



Gastronomian sakontzeko askotariko jarduerak aukeran daude.

gastronomia ezagutzeko 10 jarduera eta tailer egongo dira aukeran. Berbarako, Plentziako Crusoe Treasure Upategiak ardo-dastaketak eskainiko ditu zapatuetan. Ostera, Gorlizen II. Artisau Garagardo Azoka egingo dute

hilaren 27an eta 28an. Era berean, inguruko hainbat gastronomia-enpresatara bisitak egiteko aukera egongo da, esaterako Gorlizko Cervezas Tito Blas Brewing CO eta Urdulizko Etxeandia Garagardauak garagardotegietara. ◀

Urduliz

Doako euskara-ikastaroetan izena eman daiteke

Gurasoentzako eta merkatariarentzako euskara-ikastaro bereziak antolatu ditu Urdulizko Udalak. Horietan parte hartu gura dutenek urriaren 13ra arte izena eman ahal izango dute, egun hori barne. Ikastaroak 120 ordukoa izango da, astean behin ordu biko eskola bi egongo dira, urritik hasi eta datorren ekainera bitartean. Udalak jakinarazi duenez, horren matrikulazioaren prezioa doakoa izango da Urdulizen erroldatuta dauden gizon-emakume denentzat. Deialdi horren gaineko informazio dena eta eskabide-orriak Uribe Kostako AEK euskaltégian (Gorlizen edo Plentzian) eskuragarri daude gura duten denentzat. Modu berean, gutxieneko taldea sortuz gero, ikastaroa Urdulizen bertan eskainiko dutela iragarri eta jakinarazi dute antolatzaileek. ◀

info+: www.urduliz.eus
izen-ematea: jentilbaso@aek.org
946 773 646

Gorliz

Kartoia batzeko atez ateko zerbitzua martxan dago

Kartoia eta papera batzeko atez ateko batze-zerbitzu berria jarri du martxan Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak; ostalaritza, denda eta enpresei bideratuta dago hori. Arduradunek ohar bidez zehaztu dutenez, horren helburua da ahalik eta gehien birziklatzea. Horretarako, establezimendu bakoitzari egokitutako zerbitzua eskaintzea aurreikusi dute.

Horren harira, Gorlizko Udalak jakinarazi du zerbitzu horren inguruko irizpideak errepasatzeko eta hondakinei lotutako ordenantza aurkezteko eta adosteko bilera bat egingo duela. Bitar-



Batzeak martitzen eta barikuetan izango dira.

tean, zalantzak argitzeko helbide elektronikoa kaleratu dute. Batze-zerbitzua doakoa da, eta horretaz gozatzeko aldez aurretik izena eman behar da. ◀

info+: agenda21@gorliz.net

Sertutxenan ikus daiteke ArgIHizkiak erakusketa ibiltaria

Algortako aurkezpenaren ostean, Gorlizen goza daiteke ArgIHizkiak erakusketaren seigarren ekitaldiaz. Egizu elkarteak eta HIRUKA komunikazio-elkarteak antolatzen duten erakusketa joan den urriaren 2an lekualdatu zuten, Algortako Azebarri kulturgune-tik Gorlizko Sertutxena kultur etxera. Erakusketa osatzen duten 10 irudiak eta horiei lotutako testu denak hilaren 15era arte egongo dira Sertutxenan, astelehenetik barikura, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 10:00etara. Ostean, Algortako Merkatuan egongo da erakusketa, hilaren 20tik 27ra. ◀

Barrika

Mendi-argazkilaritza ikastaroa, azaroaren 18an eta 19an

Natural Photo Travel-en kide den Xabier Mendieta argazkilariagaz mendi-argazkilaritzaren gaineko ikastaroa antolatu du Bizkaiko Mendizale Federazioak. Azaroaren 18an eta 19an izango da, Anboton eta Barrikan, hurrenez hurren. Leku-kopurua mugatua da, 40 lagun onartuko dituzte, gehienez. Beraz, ikastaroan ahalik eta arinen izena ematea gomendatu dute. Norberak bere kamera eroan beharko du, baina, antolatzaileek filtroak eta porta-filtroak utziko dizkiete bertaratuko direnei, praktikatzeko. ◀

izen-ematea: www.bmf-fvm.org

Gorlizko eta Plentziako hondartzak, aurtengo onenak

Aurtengo hondartza denboraldia amaitutzat eman du Bizkaiko Foru Aldundiak, eta erabiltzaileek «oso ondo» baloratu dituzte eskualdeko hondartzak, 7,85 puntuko batez besteko balorazioagaz. Horieta-tik denetatik, ondoen baloratu dituztenak Gorliz (9,18) eta Plentzia (8,87) izan dira. Nota onena eskuratzen duen alderdia hareatzen segurtasuna da: 8,68 eman diote herritarrek. Inkesta

bete duten pertsonen arabera, hondartza seguruenak Gorliz (9,18), Arri-gunaga (9,01) eta Aritzatxu (8,93) dira. Atal horren barnean, gainera, Sorosleen Zerbitzua nabarmendu behar da bere balorazioagatik: 9,66. Bainurako segurtasunak 9,49 lortu du eta ondoen baloratzen den bigarren alderdia izan da; hondartzainen eraginkortasunak, berriz, 8,31 lortu du. ◀

info+: web.bizkaia.eus



Hemengo eta Hango

Katalunya gure esku

Kataluniak gauzka gatibu. Berriz erakutsi du bide horretan derrigorrezkoa dela herri lege ibiltzea. Horretarako, ezinbestekoa eta oinarritzakoa da kultura berri bat sortzea. Gure Esku Dago dabil lan izugarria egiten. Berriki eta publikoki, elkarte horretan diren jeltzaleei behar etzan lekuan, modu guztiz desegokian, kritika egin nien. Eta damu dut. Benetan, lan beharrezko eta zaila da-gizue hor zabiltzatenek. Bestalde, guztiz kontraesankorra egiten zait egitura jeltzalearen jarrera. Estatutu berri bat ezin ezkondu independentziarekin. Madril PP eta Gasteizen PSE, Kataluniako errepresioaren lagunak dituzue aliatu. Osagai funtsezko bat falta zaio gure butifarrari. ◀



Aitziber Garmendia, Ane Gabarain, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino aktoreak igoko dira taula gainera. © TXALO PRODUKZIOAK

Etxeko endredoak

Txalo Produkzioak taldeak *Etxeko saltsak* antzezlan eskainiko du urriaren 19an, Altzagako lehengo azokan. Hala, udagoienera ere euskarazko antzerkia egongo da Erandion.

Urriaren 19an, egunean, *Etxeko saltsak* antzezlan taularatuko du Txalo Produkzioak taldeak. Ikuskizuna Altzagako azoka zaharrean egingo dute, 20:00etan; sarrera, doan. Aipatu-

tako obra endredozko komedia da, korapilatsua. «Ikusleek pertsonaiek baino informazio gehiago izango dute, eta aktoreek txarto-ulertuen etengabeko kate dibertigarrian dantzan egingo dute», azaldu dute antolatzaileek. Lanaren

egilea Alan Ayckbourn da, antzerkigile eta zuzendari ingeles ezaguna. Istorioak agertzen duenez, Greg eta Ginny etxe berean bizi diren maitaleak dira, bizimodu zoriontsua dute, ustez: sekreturen bat dago isil-gordean. Ginnyk

gurasoen landetxera bisita egitera doa la esango dio; baina, gezurretan dabil. Izan ere, bere maitale sekretuarengana doa, Philipen albora, bien arteko harremana eten behar dutela esateko asmoz. Gregek, susmo txarra hartuta, neskalagunari jarraituko dio eta bera baino lehenago helduko da Philip eta horren emaztea den Sheila bizi diren landetxera. Ginnyren gurasoak direlakoan dago Greg. Ginnyk Philipi aitaren plantak egitea eskatzen dio...

Antzerki EguEnak

Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak *Desentxufatuak* antzezlanagaz estreinatu zuen Antzerki EguEnak ekimena, urtarrilaren 19an. Ordutik, udako oporrak heldu arte, hilean behin euskarazko antzezlan bat programatu dute Altzagako azoka zaharrean, hilaren hirugarren egunean, hain zuzen ere. Egunean, Txalo Produkzioak taldeak eskainiko duen *Etxeko saltsak* antzezlanak horren jarraipena izan gura du. Hala ere, Euskara Zerbitzuko ardura-dunek ohartarazi dutenez, azaroko antzerki-saioa ezin izango dute egunean egin. Eguaztenean izango da, azaroaren 22an; *Ez dok hiru!* antzezlan taularatuko dute Tartean konpainiako Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek; eurak izan ziren EguEnak ekimenari hasiera eman ziotenak. Azaroan, oster, hiru musikari-aktore izango dituzte lagun, agerlekuan. Horien artean egongo da Maria Arriaga algortarra. ◀

Hitza emanda



Urri

Albiste pila martxo, azaro zein urri, eta informatzeko hamaika iturri... beraz ez geratzeko adimenez urri, gure eskualdeko prentsa irakurri!



INAZIO VIDAL GURRUTXAGA
Bertsolari leioaztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Aktibismoaren gainera jardunaldiak egingo dira

Urriaren 20tik 22ra arte, Curuguaty Aktibismo Eskolaren hirugarren edizioa egingo dute, Gorliz eta Plentzian, VSF Justicia Alimentaria Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta. Beste urte batzuetan legez, asmoa da parte-hartzaileek «aktibismo-ekimenaren berri ematea elkarri, elikadura burujabetzan oinarritutako bestelako elikadura baten bila», antolatzaileek azaldu dutenez. Besteak beste, zapatuan, ikuspegi feministatik, aktibismoaren inguruko ekintzak eta estrategiak zelan garatu ezagutuko dute. Horrez gainera, topaketen azken egunean, Barakaldoko La Huertakara joango dira; jarduera agro-ekologiko autogestionatuak garatzeko gunea da. Bertan, *Ortu Irekiak* izeneko jardunaldia ezagutzeko aukera izango dute Curuguaty Aktibismo Eskolan parte hartzen duten denek. Daborduko ekimenen izena eman daiteke. ◀

Egitaraua

Urriak 20, barikua

17:00 Curuguaty eskolaren aurkezpena.

17:30 VSF Justicia Alimentariaren hainbat ekimenen aurkezpena.

- Dame Veneno eta Gure Platera. Gure Aukera ekimenak.

- Boliviako esperientzia.

20:00 Afari agro-ekologikoa eta eztabaida.

Urriak 21, zapatua

10:00 *Feminismoa eta elikadura-burujabetza*.

Leticia Urretabizkairen parte-hartzeaz.

12:00 Hainbat ekimenen aurkezpena.

14:30 Bazkaria.

16:00 Talde-lana.

Urriak 22, domeka

10:00-14:00 Ortu Irekien jardunaldia, La Huertakan (Barakaldo).

- Mahai-ingurua, musika, grafitiak eta parrillada agro-ekologikoa.

izen-ematea: administrazioa@vsf.org.es

Zallako kanporaketan bigarren lotu da Jone Uria bertsolari algortarra; itxaron beharko du

Kanpoan ere egundoko giroa egonarren, 650 bertsozale inguruk Zallako Mimetiz pilotalekura joatea aukeratu zuten, urriaren 7an, Bertsolari Txapelketa Nagusiko laugarren final laurdena jarraitzeko. Jone Uria bertsolari algortarragaz batera, oholtza gainean egon ziren Miren Amuriza, Eneko Abasolo *Abarkas*, Onintza Enbeita, Oihane Perea eta Odei Barroso. Final laurdenetan zehaztutako ariketak egin zituzten lehiakideek; bikain jardun zuten denek, antolatzaileen berbetan. Kartzelakoaren ostean eman zuten saioko sailkapenaren berri: 700,5 puntu lortu zituen Miren Amurizak eta, horrenbestez, Zallako saioa irabazita, finalaurrekoetan abesteko zuzeneko txartela lortu zuen. Jone Uria (662 puntu) bigarren lotu zen; hurrengo kanporaketetan zer jazoko den begira egon beharko du; izan ere, puntu gehien batzen dituzten bertsolariek osatuko dute finalaurrekoetara igaroko den taldea. ◀

URIBE KOSTAKO UDA III. ARGAZKI-LEHIAKETA

Honako hauek dira hiru irabazleak:

SARIDUNAK




Mediterraneo itsasoa argazkiak lortu ditu boto gehien; hala, horren egile Mikel Amezkuak irabazi du lehenengo saria:

Bi pertsonarentzako gau biko egonaldi bat NEKATUR Nekazal Turismo elkarteko ostatuetan.



Kaioa argazkia izan da bigarren onena, Garazi Lopez de Uraldek egindakoa da; berarentzat, bigarren saria: Bi pertsonarentzako gau biko egonaldia, eta bazkaria ala afaria Plentziako Casa de Marinos hotelean.



Ilunabarra argazkia aukeratu dute hirugarren onena legez boto-emaileek, Iñaki Carranzarena da, eta berak jasoko du hirugarren saria:

Bi pertsonarentzako afari bat Algortako Saigon Fusion jatetxean.



Laguntzaileak



hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2017ko **urriaren 11**tik **urriaren 18**ra arte



Ibilbide turistikoa, parapente-hegalaldi birtuala eta Itxas Egurra Haizearen erakusketa ere egongo dira, Algortako Portu Zaharrean.

GETXO

Arrain Festa egingo dute Portu Zaharrean

Urriaren 12tik 15era arte, Arrain Festaren 12. edizioa egingo dute Algortako Portu Zaharrean. Portu Zaharra, Itxasbide, Arrantzale eta Txomin tabernekin antolatutako ekimena, Txalupa denda, Hala, egunean egingo dute Arrain Festaren inaugurazioa, hitor-19:00etan ipini dute. Ordu erdi beranduago, artisau-garagardoak egingen ikasteko tailerra egingo dute; ordu bete iraungo du ikastaroak. Egitariari jarraituz, barikuan, umeentzako sukaldaritza-tailerra (12:00-14:00) eta pintxo-pote jardunaldiak egingo dituzte (19:00-22:00). Biheramunean, zapatuan, ekitaldi ugari egongo dira: herri-marmitakoa (11:30-16:00), kalimotxoaren ordua (14:00-15:00) txakolina dastatzeko tailerra (12:00-13:00), sardina-jana (19:00-21:00) eta artisau-garagardoak egingen ikasteko ikastaroa (20:00-21:00) egingo dituzte. Azkenik, domekan, berriro ere, kalimotxoaren ordua (14:00-15:00) egingo dute, Etxetxun. Horrez gainera, egun honetan bertan banatuko dituzte antolatutako argazki-lehiaketaren sariak, 13:00etan. Bertalde, egunero salduko dituzte taloak eta euskal produktuak. ▶

2017ko

ONDAREAREN

EUROPAKO

JARDUNALDIAK

Urria / 2017

BIZKAIA

www.bizkaikoa.bizkaia.eus/jep

Getxo

2017/10/12
10:30 *Bolueko hezegunea* ibilaldi gidatua, Getxoko Ingurumen Aretotik abiatuta. Euskaraz. Doan. Informazioa eta erreserbak: 688 883 596
2017/10/13
12:30 Begoñako galerietara bisita gidatua. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Informazioa eta erreserbak: 944 910 800
2017/10/14
11:00 *Déjame que te cuente* Getxo: Puerto Viejo ipuin-kontalaria, Algortako Portu Zaharreko Etxetu plazan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Informazioa eta erreserbak: 944 910 800

2017/10/15
13:00 Begoñako galerietara bisita gidatua. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Informazioa eta erreserbak: 944 910 800
2017/10/17
18:00 *Kostaldeko Getxo* ibilaldi gidatua, Algortako Portu Zaharreko Etxetu plazatik abiatuta. Euskaraz. Sarrera, doan. Informazioa eta erreserbak: 688 635 350
Berango
2017/03/14
19:00 *Evolución de nuestro paisaje* antzezlan, Berango Antzokian, Txirlora-ACADAE taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Informazioa eta erreserbak: 946 682 143

Plentzia

2017/10/14
18:00 Mahai-ingurua, Goñi Portal kultur etxean. Sarrera, doan.
2017/10/15
10:00 *Eraldatzen ari den paisaia* ibilaldi gidatua piarguaz. Doan. Informazioa eta erreserbak: 946 774 199

Barrika

2017/10/14
11:00 *Los acantilados y el flysch de Barrika* ibilaldi gidatua, udaletxeko plazatik abiatuta. Gaztelaniaz. Doan. Erreserbak: 946 771 062

ANTZERKIA

URRIAK 11, EGUAZTENA
Rezikletas
20:00 | **San Nikolas plaza (Algorta)** | **Getxo**
Getxoko Antzerki Jardunaldiak. Turukutupa taldeagaz. Testu barik. Danontzat. Doan.

URRIAK 12, EGUENA
Dj Porru
13:00 | **San Nikolas plaza (Algorta)** | **Getxo**
Getxoko Antzerki Jardunaldiak. Kilikon taldeagaz. Euskaraz. Umeentzat. Sarrera, doan.

Un dios salvaje
20:00 | **Areetako musika-eskola** | **Getxo**
Producciones taldeagaz. Gaztelaniaz. Helduentzat. Sarrera: 10 euro.

URRIAK 14, ZAPATUA

Ez dok hirul

20:00 | **Areetako musika-eskola** | **Getxo**
Getxoko Antzerki Jardunaldiak. Tartean Teatroa

AZAROAREN 6RA ARTE

Ertibil
Kultur Leioako erakusketa-gela | **Leioa**
Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako ikus-arteen erakusketa ibiltaria. Hamabost artelan ikus daitezke. Sarrera, doan.

IKASTAROAK

URRIAK 17, MARTITZENA
Argazki-teknikak
19:30-21:00 | **Atxutegi kalea, 15** | **Erandio**
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

JARDUNALDIAK

URRIAK 15, DOMEKA
Plentzia Amesten
17:30 | **Goñi Portal kultur etxea** | **Plentzia**
Umeakaz landutako proposamenetik abiatuta, proiektu bat garatuko dute. 5 eta 12 urte arteko neska-mutilentzat. «Guraso-zaintzako» zerbitzua egongo da, aita-amek ere prozesuaren herri izan dezaten. Parte-hartzea libre.

Richard zikoina filma, umeentzat, euskaraz

Urriaren 14an eta 15ean, *Richard zikoina*. Amestu, ametsak egi bihurtzeko filma ikusteko aukera egongo da, euskaraz, Kultur Leioako entzungelan. Emanaldia 17:30ean hasiko da; eta sarrera, 3,50 euroan egongo da. ◀

Ipuin bihurrien zakua, ipuin-kontaketa

Lur Usabiaga ipuin-kontalariak emandia eskainiko du Astrabuduko kultur etxean, urriaren 18an, eguaztean: *Ipuin bihurrien zakua* ikuskizuna 18:00etan hasiko da; sarrera, doan. Saioa 4 urtera arteko umeentzat da. ◀

Olentzero antzerkian izena eman daiteke

Olentzerori ondoetorria egiteko, antzerkia egin ohi dute; Plentzian; daborduko horretan parte-hartzeko herritarrak bilatzen dabilta, Goni Portal kultur etxean. Bertan izena eman dezakete parte hartu gura dutenek. ◀



Detektibeak antzezlan 5 eta 10 urteen arteko umeentzat da. © ANA APIKA

Detektibe plantak egiten, Berangon

Oraingoan, hainbat objekturen desagerpena ikertu behar ko dute Monda eta Ironda pailazoek; baina, dena prestatu ostean, «datu garrantzitsu bat» falta zaiela konturatuko dira: ez dakite zer demontre bilatu behar duten! Nagusiak, ordea, argi dauka: lapurra aurkitu behar dute. ◀

Noiz: Urriak 15, domeka.
Ordua: 18:00
Non: Berango Antzokia.
Sarrera: Doan.

KIROLAK

URRIAK 13, BARIKUA

Urduliz Arena IV

21:00 | Iparralde kiroldegia | Urduliz Basakick klubak antolatuta. Boxeo eta kickboxing -a egongo dira. Sarrera: 15 euro (aurretik) / 20 euro (leihatilan). Informazio gehiago: basakick.net

MOBILIZAZIOAK

URRIAK 14, ZAPATUA

Indar Okupatzaileak Zirikatzeko Eguna

12:00 | Telletxe plaza (Algorta) | Getxo Algotatik Hanka indar okupatzaileen kontrako mugimenduak antolatuta. Besteak beste, *Tellexakurra zidgame?* (12:00etan, Telletxen), triki -poteoa (13:00ean, San Nikolas plazatik), herri -bazkaria (14:30ean, Katean, 8 euroan), «kalbo» herrikoa (17:00etan), manifestazio zaratatsua (18:30, Telletxetik) eta kalejira (20:00etan) egongo dira.

MUSIKA

URRIAK 14, ZAPATUA

Fading Away, Fallen Kingdom, Beyond his Faith eta Minerva

21:00 | Plaza Beltza kulturgunea | Sopela Sarrera: 5 euro.

TXANGOAK

URRIAK 15, DOMEKA

Argazki-irteera Elorriora

08:00 | Astrabuduko taxi -getokia | Erandio Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Hilero egiten dute argazki -irteera. 14:00etan egongo dira bueltan. Doan. Informazioa: astrabudukofotoclub@gmail.com

ZINEMA

URRIAK 14, 15 ETA 16

Dunkerque

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa Filma 12 urtetik gorako ikusleentzat da. Gaztelaniaz emango dute. Sarrera: 4,50 euro (ikusleen eguna: 3,5 euro).

URRIAK 17, MARTITZENA

Clash

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa Perseo zineforuma. Arabiar herrialdeak eta Iran zikloa. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

BERBALDIAK

URRIAK 18, EGUAZTENA

Introducción a la micología

17:00 | Sertutxena kultur etxea | Gorliz Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak bultzatutako Ekogune egitasmoaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Hala ere, aurretik izena ematea beharrezkoa da. Informazio gehiago: 946 762 674

Hizkuntzen munduan gozatzu

18:30 | Sertutxena kultur etxea | Gorliz Euskaraz. Sarrera, doan.

DANTZA

URRIAK 13, BARIKUA

Entre cuatro tiempos

20:00 | San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo Getxoko Antzerki Jardunaldiak. La Gio taldeagaz. Dantza bertikala. Danontzat. Sarrera, doan.

URRIAK 14, ZAPATUA

Eight eta Privolva Landing

13:00 | San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo Getxoko Antzerki Jardunaldiak. Danontzat dira emanaldi biak. Lehenengoan, KTTOA-Collective taldeak dantzatuko du; eta bigarrenean, Olatz de Andresek. Sarrera, doan.

ERAKUSKETAK

URRIAREN 15 ERA ARTE

Pintura-lehiaketaren lanak

Udaletxeko Erloju Aretoa | Plentzia

Plentziako Udalak antolatuta. Sarrera, doan.

URRIAREN 16 TIK 27 RA ARTE

Rosa Diazen eta Miren

Berastegiren margolanak

Gofi Portal kultur etxea | Plentzia Sarrera, doan.

«Euskaldunak izateaz harrituko eta harrotuko dira ikusleak»

Ez dok hiru! antzezlanaz gozatzea aukeran egongo da zapatuan, urriaren 14an, Getxoko Antzerki Jardunaldietan. Tartean konpainiako Patxo Telleria eta Mikel Martinez igoko dira oholtzara, Areetako Andrés Isasi musika-eskolan. Hiru musika-aktorek lagunduko dituzte; horien artean dago Maria Arriaga algortarra. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrerak 10 euroan egongo dira.



TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Patxo Telleria, zelan bururatu zitzaizun *Ez dok hiru!* antzezlanaren idaztea?

Patxo Telleria: Horrelako antzezlan bat idaztea ez da momentu batean bururatzen zaizun gauza horietariko bat; nik aspalditik neukan musikarekin zeozer egiteko gogo. Baina, beste hainbat ideia bezala, egitekoen zerrendan neukan. Hala, Cafe Bar Bilbao tabernan bilduta geundela, «bulegokoak» etorri ziren hausnarketa bat egin behar zutela esanez: musikal bat egin behar genuela uste zuten. Musika eta antzerkia uztartzeko, ikuspuntu ezberdinak genituen; hala ere, baiezkoa eman nien, eta *Ez dok hiru!*-ren estiloko musikala egitea erabaki nuen.

Zer aurkituko dute oholtza gainean *Ez dok hiru!* ikustera doazen lagunek?

Mikel Martinez: Aurretik, *Ez dok hiru!* markarekin egin ditugun obra batzuk ikusi badituzte, umore-estilo bat, euskararekin eta testuekin jolasteko modu bat... hori guzti hori igarriko dute. Bestalde, aurrez aurreko aurpegiak Patxorena eta nirea izango dira: hau da, betikoak! Horretaz gainera, zuzeneko musika aurkituko dute. Antzezlanean, bizkarrak oso ondo zainduta izaten ditugu Patxok eta biok, beste hiru musikari-aktoreekin. Ematen du bigarren plano batean daudela, apur bat atzerago daudelako agerlekuan; baina, inpresioa besterik ez da.

Telleria: Musikak sekulako indarra ematen dio antzezlanari, dudarik gabe. Zuzeneko musikak bizitasuna ematen dio obrari.

Denbora luzez diharduzue elkarregaz beharrean. Esan daiteke antzezteko estilo propioa sortu duzuela bien artean?

Telleria: Beharbada, hori esatea asko esatea da. Baina, guk esan esaten dugu. Kar, kar, kar.

Martinez: Euskararen munduan, bada, bai...

P.T.: Euskararen munduan ez ezik, orokorrean ere

“Euskal musikari egin dakioken omenaldirik onena da antzezlanari; garai bateko abestiak gogoratzeko aukera”

bai. Antzerkian hasten zarenean ez zara hutsetik abiatzen; ingurukoek zer egiten duten begiratzen duzu beti. Gu ez gara hutsetik hasi; hainbat antzezlari eredutzat hartu ditugu. Agian, euskararen munduan ez, baina beste herrialde batzuetan badago, edo bazegoen, egiten dugunaren antzeko zer edo zer, adibidez: Marx anaiak, Tip eta Coll, Faimino eta Cansado... bururatzen zaizkit orain.

M.M.: Edo Monty Python.

P.T.: Horiek denak abiapuntuak dira; baina, txikitik ere, bakoitzak amaren edo andereñoaren kaligrafia-eredua ikasten du. Denborarekin, ezinbestean

norberak bere kaligrafia propioa lantzen du. Guk «kaligrafia-eredu» propio bat egin dugu antzerkian; ez jenio batzuk garelako, baizik eta denborarekin zure modura ateratzen direlako gauza guztiak.

Eta ikusleak orain arte, behintzat, ez dira nekatu.

P.T.: Orain arte ez; baina, nekatuko dira! Kar, kar, kar. Munduan, gauza guztiek daukate jaio, hazi eta abailtzeko joera.

M.M.: Baina, egia esan, meritu handia daukagu, «gerra» nahikoa ematen dugulako. Estilo honetako bost antzezlan egin ditugu jada, eta oraindik ere ikusleak harritu egiten dira. Neurri batean, espero dutena eskaintzen diegu; baina, askotan, zur eta lur geratzen dira.

Horrez gainera, oraingoan hiru musikari aktoregaz partekatzen duzue agerlekua. Zein da horien egitekoa, zer paper jokatzeko dute horiek?

P.T.: *Ez dok hiru!* idatzi nuenean buruan zer neukan ideia bat egin dezazun, egitura honetan, orain arte aipatu ez dugun talde argentinar oso ezagun bat dago: Les Luthiers. Musikarekin umorea egiten du seikote horrek: kideetako bi aktore-lanetan dira adituagoak; gainera, horien bien artean bata musikan trebatuagoa dago bestea baino. Gure kasuan berdin-berdin gertatzen da: Mikel musikan adituagoa da.

M.M.: Eta aktore hobe ere banaiz! Kar, kar, kar.

P.T.: Gero, egon badaude beste hiru musikari-aktoreak direnak; eta Les Luthiersen, orokorrean, esan



daiteke, aktoreak baino, musikariak direla. Aipatu ditugun hiru musikari-aktore horiek esketx batzuetan jo besterik ez dute egiten, eta, beste batzuetan, ekintzan parte hartzen dute. Gurean, berdin-berdin.

Aipatu duzuenek, zuzeneko musikak indar handiagoa ematen dio antzezlanari berari?

P.T.: Batetik, indar handiagoa ematen dio antzezlanari; bestetik, umorea ez doa errailetara, burura baizik. Umorea deskodetzeko adimena erabiltzea behar-beharrezkoa da. Umorea intelektuala da; barre egitea gauza emozionala dela ematen duen arren. Musika erabat emozionala da. Zentzu horretan esango nuke antzezlan hau nahiko osoa dela: alde bate-tik, burua erabili behar duzu; eta, bestetik, erraiak.

Daborduko hogei bat saio eman dituzue. Zelakoa izan da ikusleek antzezlanari egin dioten harrera?

M.M.: Hasteko, estreinaldia handia izan zen. Arriaga antzokian, Tartearen taldearen emanaldi bat egiten dugun bakoitzean polita izaten da beti; baina, oraingo honetan, bereziki ederra izan da: emanaldi bitan bete genuen aretoa, eta jendea oso gustura ateraz. Patxok berak esan du: jendeak ondo pasatzen du gure umoreagaz barre egiten duelako, harritu egiten delako... eta, musikarekin, hunkitu egiten da. Inoiz ez da gure asmoa izan ikusleak zirikatzea, algaraka has daitezen. Baina, batzuetan, amaieran, zutik eta txaloka bukatzen du jendeak. Beste, leku batzuk txikiagoak eta hotzagoak izaten dira...

Maria Arriaga, eta zuk zelan balioesten duzu taula gainean jarduteko sortu zaizun aukera hau?

Maria Arriaga: Aukera izugarria dela uste dut. Entseguetan ere asko ikasi nuen; izan ere, musikarekin gertatzen ez den bezala, antzerki-munduan guztiz ezjakina nintzen. Nire ikuspegitik, zuzenean, «hirugarren martxa» sartzea izan da. Hasieran oso arrotz

“ Zer gertatzen ari da Getxo Antzokiarekin?; inork ez digu azalpenik eman. Udalerrri honek bere neurriko aretoa behar du ”

egiten zitzaidan antzerkiaren mundua; oso lotsatuta egoten nintzen. Baina, pixkanaka ikasiz, eta, denboraren poderioz, orain asko disfrutatzen dut agerlekuaren gainean, musikari-antzezlearena egiten. Gozatzen, disfrutatzen ikasi dut.

Eta gainera, hori gutxi balitz, daborduko oso eza-gunak diren aktore bi dauzkazu parean.

M.A.: Bai. Ez naiz hasi antzezlan txiki bat egiten, lagun-kuadrillarekin; zerotik hasita, Arriagan estreinatu dugu egiten dudana lehenengo antzezlan, bostehun pertsonaren aurrean!

M.M.: Entseguen kontua aipatu du Mariak; horrelako saioak egitea oso garrantzitsua da antzerkian hasiberriak diren lagunentzat. Patxok idazten duen testuak ez du zertan behin betikoa izan behar; izan ere, entseguetan gauza berriak sortzen dira. Prozesu hori zelakoa den barrutik ikusteak polita izan behar du mundu hori ezagutzen ez duen pertsona batentzat. Izan zitekeen, guk obra eginda daukagula, musikari-antzezleei non jarri behar diren eta noiz jo behar duten esatea. Baina, ez da hori. Berarentzat bakarrik ez, guretzat ere oso garrantzitsua da Mariak prozesu horretan parte hartzea. Nahiz eta aktoreok, guk, testu luzeagoak eduki jendearen aurrean, aktore moduan testu laburragoak dauzkana hasiera-hasieratik prozesu horretan egotea inportantea da.

Horrenbestez, zuen ustez garrantzitsua da hasiberriak diren aktoreak daborduko urte asko daroatenakaz agerlekuan jardutea edo egotea.

P.T.: Hori bizilegea da.

M.A.: Erreleboa gertatu behar da.

P.T.: Horrela gertatzen da beti. *Zergatik, Jamil?* izenburua zeukan aurretik egin genuen antzezlanak; nik idatzi nuen, eta Mikelek eta Eneko Sagardoik egiten zituzten aktore-lanak. Gaur egun, Eneko oso ezaguna da *Handia* pelikulako protagonista delako; baina, gurekin hasi zenean, 22 urte baino ez zituen.

M.M.: Beraientzat ez ezik, guretzat ere gauza berriak ikasteko modua da; beti jende berberarekin ibiliz gero, ez duzu bestearengandik gauza berririk ikasten. Hasiberriekin, ordea, nahiz eta oso gazteak izan, eta, teoriarik, ez jakin, seguru asko gauza asko emango dizkizutela. Ez jakitearena, gainera, oso erlatiboa da.

Maria, oraingoan «etxean jokatu» duzu. Zer sentiarazten dizu horrek?

M.A.: Lagun eta senide gehienak Arriagara etorri ziren, estreinaldira; eta, dagoeneko, baten batzuk bigarren aldiz ere ikusi dute antzezlan. Egon badaude *Ez dok hiru!* hirugarren aldiz ikusiko duten lagunak eta senideak; horiek guztiek Getxoko saiora ere etortzea erabaki dutelako. Zure herrian kontzertu bat ematen duzun bakoitzean gertatzen den bezala, urduri nago; baina, aldi berean, gogo handia dut nire ingurukoek ere zertan nabilen ikus dezaten. Gehienbat jende ezaguna izango delako urduritzen naiz; izan ere, «etxean jokatu» gehiago eskatzen diot neure buruari.

Mikel eta Patxo, zuontzat zelakoa da Getxon antzezlan aurkeztea?

P.T.: Gauza bat esan nahi nuke: Euskal Herriko aktoreok eta artistok zain gaude aspalditik, denbora gehiegi daramagu itxaroten, Getxo den bezalako udalerririk garrantzitsu batean bere neurriko areto bat zabal dezaten. Ze arraio gertatzen ari da Getxo Antzokiarekin? Inork ez digu azalpenik eman.

Amaitzeko, zer esango zenioke jendeari *Ez dok hiru!* ikustera joan dadin?

M.M.: Bizitzan gertatzen zaizkidan gauzetako batzuk gogoan dauzkatz beti, eta, beste batzuk, ez; antzezlan ikusten duenak gogoratu egingo du. Euskarari dagokionez, harrituko dira eta harrotuko dira euskaldunak izateaz.

M.A.: Goitik behera, euskal musikari egin dakiokeen omenaldirik onena da antzezlan; garai bateko abestiak gogoratzeko aukera paregabea da. ◀


Albama





O rain dela 440 urte inguruko Plentziako bizimodua, plazan, gaur egungo plentziarren begien aurrean. Musikaz eta dantzaz girotutako euskarazko herri-antzerkia Jokin de Pedrok idatzi du, eta, zuzendu, Alex Ygartuak. Balearik noiz helduko begira portuan edo tabernan dauden itsasgizonak edo arrantzaleak; sareak josten, eskabetxe-fabrikan beharrea eta umeak jagoten diharduten andrezkoak; balea bila joanda, Ternuan (Kanada) ezagututako hango jatorrizko herritarak...

Plasentzia 1577





Eskola Kirolean jarduten dute 700 kirol-arduradunek eta 4.700 entrenatzailek. © BFA

Eskolan, kirola gozatzeko dela gogorarazi du Aldundiak. Gurasoei eskatu die umeak animatzeko; eta, arau berriak ezarri dituzte, eskoletan olgeta eta jostaketa ziurtatzeko.

Eskola Kirolaren ikasturtea gozatzeko gonbita egin du Bizkaiko Foru Aldundiak. Lorea Bilbao Euskara eta Kulturako foru-diputatuak eta Unai Rementeria ahaldu nagusiak azpimarratu dute Aldundiak ahalegin oso handia egiten duela eskola-kirolean, eta denon artean lortu behar dugula txikiek kirola egitea eta, batez ere, hura eginez gozatzea. Modu berean nabarmendu

dute «ondo pasatzeari eta kirolaz gozatzeari» eman behar zaiela lehentasuna. Hala, azpimarratu dute «Aldundiak ahalegin oso handia egiten duela eskola-kirolean». Hasi den ikasturte honetan 45.000 eskola-ume bizkaitarrek parte hartuko dute programako 100 jardueretakoren batean. Izan ere, Aldundiak Bizkaiko 700 erakunde baino gehiagokaz egiten du lan eta milioi bi euro inbertitzen ditu urtean progra-

ma horretan. Rementeria arabera, eskola-kirola da «Aldundiak egiten duen gauza garrantzitsuenetako bat, Aldundiaren ardura handiena hartzen duenetako bat».

Aldundiak nabarmendu du eskola-kirola gozamenaren dela beste ezerekin gainetik. Bere ustean «kirola egitea eta irribarrez egotea eskutik joan behar dira». Izan ere, neska-mutil baten kirola eginez ondo pasatuz gero, askoz errazagoa izango da jarduera hori atseginez hartzea eta harrapatuta geratzea. «Osasuna, hezkuntza, diziplina eta kirolak bere-berezko dituen balioak» azpimarratu ditu ahaldu

nagusiak, eta, bere iritzian, «horiek guztiek gizarte hobea dakarkigute, osasuntsuagoa». Horren inguruan go-goeta egiteko eskatu du. Hala, adierazi dute eskola-kirolean dabilen neska-mutilek gurasoak behar dituztela inguruan ez *hooliganak*. Gogorarazi du «irribarreak, animoak eta txaloak behar dituztela. Eta ez umore txarra eta atsekabeak». Hala, hainbat neurri martxan ipini dituzte eskoletan kirola dibertsioagaz lotuta segitzeko eta umeak kirol-mailagatik baztertuko ez direla ziurtatzeko. Besteak beste, emaitzak lortzeko helburua duten kirolarien deialdiak debekatu dituzte. ◀

Boxeo- eta kickboxing-borrokaldea, Iparralden

Bariku honetan, urriaren 13an, denboraldiko lehen borrokaldia antolatuko du Urdulizko Basakick klubak. Hala, 21:00etatik aurrera, Urduliz Arenaren laugarren edizioa ikusi ahal izango da Iparralde kiroldegian, boxeo profesionalen, kickboxingean eta boxeo olinpikoan. Sarre-rak aurretik eros daitezke 15 euroan, Basakicken, Basartena tabernan, Algortako Image gimnasioan eta Sopolako Frontoia tabernan, besteak beste. Halere, Iparraldeko leihatilan ere lortu ahal izango dira, 20 euroan. Antolatzaileek iragarri dutenez, edizio honetan «beste pauso bat eman dugu,



Sarrera 15/20 euroan egongo da.

kirol- eta ikuskizun-maila igoz». Borrokaldi nagusia Diego Valtierra eta Dani Calzado boxeolari profesionalen artekoa izango da. ◀

Jorge Camiña, munduko tenislarik onena

Jorge Camiña tenis-jokalari beterrano getxoztarra munduko rankingaren buruan dabil, 70 urtetik gorakoen mailan. Camiñak balentria hori lortu zuen joan den astean Europako Beteranoen Banakako Tenis Txapelketa irabazi ondoren, Mallorcako Capdepera herrian. Mallorcan garaipena bereganatzeko lan handia egin behar izan zuen Camiñak. Izan ere, final laurdenetan Helmut Flögel munduko 11. sailkatu austriarra gainditu zuen. Finalerdian hartu zuen mendean Luis Flor jokalaria katalana, gaur egungo Espainiako txapelduna. Finalean Jairo Velasco espainiar-kolonbiarra gaindi-



© PAUL ZIMMER - NAZIOARTEKO TENIS FEDERAZIOA

tu zuen getxoztarrak. Velasco munduko 2. zen ordura arte. Ramiro Gonzalo Benavides boliviarrak da munduko aurreneko postua galdu duena. ◀

Ulertuzen aldeko martxa, prest


Datorren urriaren 22an, domekan, sendientzako elkartasun-martxa antolatuko du Ulertuz elkarteak, Areetan. Entzumen dibertsitate funtzionala duten Bizkaiko neska-mutilen lagunen eta senideen elkarrekin da Ulertuz. Aipatutako kirol-ekimenaren helburua da Ulertuzen Bilboko egoitza irisgarri bihurtzeko egin behar izan dituzten beharren kostua ordaintzen laguntzea, Janire Lucas Oleak azaldu duenez, Ulertuzen Sendientzako Babes eta Arreta Zerbitzuko koordinatzailea da bera. Horrez gainera, eguna baliatuko dute Ulertuz zer den ezagutarazteko: «aukera garrantzitsua da zabaltzeko nortzuk garen eta zer egiten dugun, entzumen dibertsitate funtzionala duten txikiak eta gazteak eta euren familiak ikusgarri egiten», Lucasek adierazi duenez. Martxan izena emateko aukera bi daude: elkartera telefonoz deitzea edo posta elektronikoren bat bidaltzea. Elkarteko kideek egin beharreko hurrengo pausoak azalduko dizkiete

interesdunei. Gainera, jakinarazi duteenez, urriaren 22an ibilbidea betetzeko aukerarik izango ez dutenek, edo gura ez dutenek ere, izango dute laguntzeko beta, zero lerroaren sistema erabiliz.

Ibilbidea

Sendientzako elkartasun-martxaren ibilbidea hiru kilometrokoa da, gutxi gorabehera, eta Areetako Evaristo Txurruka pasealekuko moilaren inguruan egingo da. Izan ere, proba kaitik irtengo da, pasealekutik igaro eta moilara bueltatuko da. Lasterketa goizeko 11:00etan hasiko da, baina, antolatzailerik ohartarazi dute komeni dela gutxienez 10:30ean bertan egotea, dortsalak garaiz jaso ahal izateko. Lucasek azpimarratu duenez, lagunarteko eta elkartasun-asmoa duen kirol-egitasmoa denez, edozein adineko emakumezkoek eta gizonezkoek parte har dezakete, gura duten legez: korrika, oinez... ◀

info+: www.ulertuz.org
944 440 125 / ulertuz@ulertuz.org



Ibilbidea ohiko pasealekua da familia askorentzat.

Eskalada-ikastaroa antolatu dute, Leioan

Leioa Mendi Taldeak eskaladarako hastapen-ikastaroak egingo ditu Sakoneta kiroldegian. Elkarrekin zabaldu duenez, berriro ere baliatuko dute Sakonetako boulderra, orain dela gutxi zaharberitutakoa. Izan ere, «harrera eta parte-hartze ona» izan zuten aurreko ikasturtean egindako ikastaro horiek. Hala, helburuari eutsiko diote, «kirol-eskalada gehiago ezagutarazteari», azaldu dutenez. Ekimena ia jende denarentzat da, bost urtez gorako denek eman baitezakete izena. Ins-kripzioa Leioa Mendi Taldearen webgunean edo posta elektronikoren bat

bidaltzen egin daiteke. Modu berean, aukera ere badago elkarrekin Sabino Arana etorbideko 77. zenbakian daukan egoitzatik pasa eta bertan ins-kripzio-orria betetzeko. Horretarako, astelehenetan eta eguenetan joan daiteke, 19:00etatik 21:00etara. Ikasle bakoitzak hautatu dezake astean behin ala bitan joatea; eguneko 90 minutuko saioak izango dira. Hala, 90 ala 127 euro ordaindu beharko dute interesdunek. Taldeak 10 pertsonakoak izango dira, gehienez jota. ◀

info+: www.leioamt.com
leioamt@gmail.com / 689 721 917

Jon Erdaide nagusitu da, Donostia-Bilbon

Jon Erdaide atleta gorliztarrak irabazi zuen Donostia-Bilbao lasterketa, Basque Ultra Trail zirkuituaren laugarren eta azken proba, joan den zapatuan. Erdaidek 19 ordu, 53 minutu eta 32 segundo eman zituen Alderdi Ederreko lorategiak eta Areatzako kaia-aren arteko 140 kilometroko ibilbidea betetzeko. 16 mendateko eta 16.600 metroko metatutako desnibeleko lasterketa izan zen; hala, «oso txarto» pasa zuen gorliztarrak. Erdaide bigarren lotu zen lehenengo proban, Bilbao-Gasteiz lasterketan; bigarrenetan, lesionatu egin zen, Gasteiz-Iruñea artekoan. ◀

Bizkaiko goma gaineko lehia laster hasiko da

Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak Bizkaiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa antolatu du, hainbat nobedadegaz. Hala, aurtongo edizioan hiru jardunaldi izango dira; azken egunean finala izango da. Lehia zortzikoteen aurkakoa izango da, 640 kilo osatu arte. Gizonezkoen eta emakumezkoen taldeak batera lehiatuko dira; elkarren aurkako tiradetan, gizonezkoek sei tiralari izango dituzte eta emakumezkoek, zortzi. Txapelketa azaroaren 12tik abenduaren 23ra jokatuko da. Izen-ematea urriaren 20ra arte egin daiteke. ◀

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 94 430 23 45
Telletxe 1 94 460 27 41
Algorta

GAVRKO
1967

50. URTEURRENA

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Superkopa Leioara, berriro ere



Harrobian hezitako taldea da leioaztarra. © LEIOA WATERPOLO

Waterpolo-jokalari leioaztarrek Sakonetara ekarri zuten Euskal Herriko Waterpolo Superkoparen garaikurra, joan den irailaren 30ean. Uribekostarrak Zornotzako Larrea kiroldegiko igerilekuetan nagusitu ziren jokaturako partida denetan; hala, Leioa Waterpoloko emakumezkoen taldeak irabazi zuen denboraldiko lehenengo titulu ofiziala. Daborduko, klubak hiru aldiz segidan lortu du Superkopa. Urdin-berdeek herrikideak gaititu behar izan zituzten finalerdian; partida ahul xamar hasi arren, Jon Lopezek gidatutako taldeak erraz hartu zituen mendean Askartzakoak, markagailuan 10-3 ipinita. Finalean,

lan handiagoa izan zuten Waterpolo 98'02 klub nafarragaz. Leioaztarrak laster aurreratu ziren, eta 1-5 irabazten zebiltzan laugarren minutuan. Baina handik aurrera, abantaila horri eusteko lanez gainezka ibili ziren. Azkenean, 9-13 irabazi zuten iruindarren aurkako lehia.

Bestalde, Claret Askartza Waterpoloko emakumezkoen taldea hirugarren sailkatu zen Superkopan, kontolazio-finalean Bidasoa 11-3 mendean hartuta. Askartzako gizonezkoen taldeak postu berbera lortu zuen, lehenengo atezaina eta James Baker estatubatuarra barik. Portugalete nagusitu zitzairen, 17-15; eta haiek 13-7 irabazi zioten Waterpolo 98'02ri. ◀

Jone Aranguren ez da egongo Emakume Master Cupean

Urriaren 22an hasiko da Emakume Master Cupeko buruz buruko lau t'erdiko aurreneko txapelketa. Jone Aranguren Perez pilotari algortarrak ez du lehiaketa horretan parte hartuko, «lanez gainezka» dabil eta, beharrean eta ikasketetan. Pilotaria unibertsitate-ikasketen azken urtean dago eta horretan zentratu da.

Hala, aitortu duenez, behar baino gutxiago entrenatu da, lehiaketan eman beharreko maila erakusteko. Arangurenek Bizkaiko Emakume Kopa irabazi zuen 2015ean, Ane Baraiazarra larrabetzuarragaz batera. Joan den urtarrilean, binakako Emakume Master Cupeko kanporaketetan jardun zuen, Jone Zabala azkoitiarragaz. ◀

Gobelan egingo dute Bizkaiko Xake Txapelketaren atal bat

Eskualdeko maila goreneko xakelariak Bizkaiko norbanakoen txapelata jokatu dute Itzubaltzeta/Romoko Gobela kiroldegian, urriaren 21etik abenduaren 2ra artean. Bizkaiko Xake Federazioak iragarri duenez, daborduko izen-ematea zabalik dago 1., 2., 3. eta goren mailetan, urriaren 18ra arte. Beste maila denak Duran-

goko Landako gunean lehiatuko dira. Izen-ematea doakoa izango da sarike-ta amaituko dutenentzat; amaierara helduko ez direnek 10 euroko inskripzioa ordainduko dute. Saioak zapatuetan jokatu dituzte, 16:00etatik aurrera. Lehenengo lau faseetan, puntu erdiko bye eskatu ahal izango da. Jokalariek 90 minutu izango dute. ◀

Udako jaietan begira
eta alboan izan gaituzu!
Zure **herriko jaien bideoa**
ikus duzu?

Jaien edo ekitaldi bereizgarrienen bideoak,
herriko protagonistakaz, elkarrizketak,
jai-giroaren irudiak...

 **hiruka**



Sartu Youtubeko
HIRUKAren
kanalera:

HIRUKA KOMUNIKAZIO-TALDEA



hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

**Producciones Serranoren ekimenez,
Jay-Jay Johanson artistaren kontzerturako
3 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu**

Urriaren 22ko kontzerturako sarrera bikoitza lortu gura baduzu,
urriaren 16a (astelehena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure
izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Urriko saria
Pizza erraldoia eta edari bi, 2 lagunentzat



Bostak tabernari esker, sari hori
zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta
bazkide denen artean.
Zozketan parte hartzeko, bidali
irailaren 31 (martitzena) baino
lehenago, zure izen-deiturak eta
harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus
edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



**Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono
mugikorraren bidez), edo bestela:**

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerek erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

		2						5
	9						6	4
			3		9			
9			6	1				
						5	7	
7							3	6
1			5		8			
3					1	7	2	
				4				

Soluzioa

1	5	9	3	7	2	6	8	4
8	2	2	1	9	6	5	7	3
3	6	7	8	2	5	9	2	1
9	3	1	5	6	8	7	2	2
6	2	5	7	3	2	8	1	9
2	7	8	2	1	9	3	5	6
2	8	2	6	5	3	1	9	7
7	9	3	2	8	1	2	6	5
5	1	6	9	2	7	2	3	8

+ Guardiako farmaziak, urriaren 11tik 18ra

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360.
Astegunetan, egunean izan ezik, 09:00-22:00.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA.
944 674 711. Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga, 5. ALTZAGA.
944 671 429. Egunean, 09:00-22:00;
zapatuan, 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291.
Zapatuan eta domekan, 09:00-22:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA.
944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre p., 8 bis. ERANDIOGOIKOA.
944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA.
944 306 570. Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo
eguneko 09:00ak arte; eguneko eta domekako
22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte;
zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA.
944 911 798. Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA.
944 303 328. Egunean, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA.
944 301 352. Egunean, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA.
944 302 632. Astegunetan, egunean izan ezik,
eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007.
Astegunetan, egunean izan ezik, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556.
Astegunetan, egunean izan ezik, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328.
Astegunetan, egunean izan ezik, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460.
Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA.
944 637 971. Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-22:00; domekan, 09:00-13:30.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO.
944 914 697. Astegunetan, egunean izan ezik,
eta zapatuan, 09:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO.
944 914 704. Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1.
ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan,
egunean izan ezik, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA.
944 631 809. Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-22:00; egunean, 09:00-13:30.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452.
Astegunetan, egunean izan ezik, eta
zapatuan, 09:00-22:00; astelehenean,
09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941.
Zapatuan, 09:00-13:30; domekan, 09:00etatik
aurrera, 24 orduz.

Leioa

ANGULO. Kandela zubieta, 19. 944 645 185.
Domekan eta astelehenean, 09:00-22:00.

NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484.
Barikuan eta zapatuan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803
191. Martitzenean, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artatza kalea, 8. NEGURIGANE.
944 608 501. Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA.
944 630 066. Astegunetan, egunean izan
ezik, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA.
946 572 295. Egunean, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea, 7. ARMINTZA.
946 879 341. Eguaiztenean, hilaren 11n,
09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301.
Astegunetan, egunean izan ezik, 09:00-
22:00; eguaiztenean, hilaren 18an, 09:00etatik
aurrera, 24 orduz.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013.
Martitzenean, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta
22:00etatik eguaizteneko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547.
Astegunetan, 09:00-22:00; egunean,
09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768.
Astegunetan, egunean izan ezik, 09:00-22:00.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50.
LARRABASTERRA. 946 762 363.

Astegunetan, egunean izan ezik,
09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik
aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA.
944 047 600. Astegunetan, egunean izan
ezik, 09:00-22:00.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507.
Astegunetan, egunean izan ezik, 09:00-22:00;
barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sakonean

Sopela, Loin



© EUISTRAK EUSKADI

Ziortza Isasi (Bizkaia, 1995)

Lointeken zegoen iaz. Pistan dabilen txirrindularia da. Halandaze, indartsua da helmugetan.



© LOINTEK TEAM

Beatriu Gómez (Bartzelona, 1987)

Lointeken zegoen iaz. Zaldi baten modukoa da, lur orotakoa. Uneoro dago prest behar egiteko eta indarra dauka.



© LOINTEK TEAM

Ariadna Trias (Bartzelona, 1995)

Lointeken sartu zen joan den uztailen. Lur orotakoa da. Ondo dabil maila erdiko mendateetan eta azkarra da esprintean.



© SOPELA-UGERAGA

Sara Martín (Burgos, 1999)

Sopela-Ugeragatik igo da. Espainiako txapelduna da erlojupean eta errepidean. Ondo ematen zaizkio igoera luzeak.



© SOPELA-UGERAGA

Esther Cañete (Teruel, 1998)

Sopela-Ugeragatik igo da. Talde-ikuspegia duen txirrindulari langilea da, taldearentzat behar egiteko prest.

Sopela-Ugeraga klubak hamargarrenez bide egingo dio emakumezko txirrindulari-taldeari, UCI mailakoari. Urdulizko Lointek enpresaren babes barik egingo du aurrenekoz, Sopela Women's Team izendapenagaz. Talde gaztea izango da aurtengoa, halabeharrez.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Joan den irailaren 17an, Madrid Challenge lasterketan lehiatu zen azken aldiz Lointek Team txirrindulari-taldea, bederatzi urteko eskarmen-tuaren ostean. Hortik aurrera, Urdulizko Lointek enpresak utzi zion Sopelako Ugeraga kirol elkartearen goi-mailako txirrindularitza-taldea babesteari. Hala, Lointek Team emakumezkoen Elite UCInak egin du, izen horregaz. Ugeragako arduradunek zabaldu zuten, kirol-elkarteak ahalegin handia eta azkarra egin zuen, beste babesle bat topatu arte, datorren denboraldian taldea Elite UCI kategorian mantendagin. Behar horren emaitza Sopela Women's Team talde berria da, Ugeraga klubak gidatzen segituko duena, funtsean hamargarren urtemuga ospatuko duen talde bera baita.

Ugeragaren eta Lointeken arteko banantzea etorri zen bederatzi urteko elkarlan oparoaren ostean. Urte horietan, «proiektu emankorra garatu» dutela gogoratu du Ugeragaren zuzendaritzak: «bai kluberrako, baita emakumezkoen txirrindularitzako osasunerako ere». Izan ere, biek gorantza egin dute, sekulan ez bezala». Horregatik, Ugeragak eskertu egin du orain arte Lointekek emandako babesa.

Sopela, talde berria

Emilio Ramos Ugeragako presidenteak azaldu duenez, Francisco Plak hartuko du Doris Ruanoren lekukoa taldearen zuzendaritzan. Hala, aro berria zabalduko da klubaren emakumezko Elite UCI taldean.

Proiektu berriaren egutegiak Euskal Herriko eta Estatu espainiarreko probak izango ditu ardatz. Hala ere, nazioarteko UCI egutegiko hainbat lasterketetan ere izango dira Sopelako txirrindulariak. Dena den, oraindino itxaron beharra dago, probetako datak ezagutu eta, beraz, taldearen egutegia finkatu arte. Litekeena da taldeak urtarilaren akabuan, Sopelako Kurtzio kultur etxean egingo duen aurkezpenean, horrelakoak jakinaraztea.

Sopelan emakumezkoen taldea hamar txirrindularik osatuko dute, gehienak gazteak izango dira. Etorkizun oparoa izan dezaketen kirolari horiek eskarmentu handiago duten beste txirrindulariakaz behar egingo dute, «apurka-apurka bloke osoak bere ahalmen osoa gara dezan helburuagaz», Ugeragako kideek azaldu dutenez. Hiru txirrindularik errepikatuko dute joan den denboraldiko Lointek Teamek bere izendapena galdu ostean: Ziortza Isasik, Beatriu Gómezek eta Ariadna Triasek. Haiekaz batera izango dira Sopela-Ugeraga talde filialeko kide bi, orain arte 23 urtez azpiko atalean lehiatutakoak: Sara Martín Espainiako errepideko eta erlojupeko txapelduna eta Esther Cañete. Modu berean, Ugeragak atek zabaldu dizkie Elkar Kirolak txirrindularitza-eskolagaz jarduten duen Bioracer Elmet taldeko hiru kideri: Olatz Agorriari, Enara López eta Mireia Muñoz. Azkenik, eskudra osatuko dute Maialen Aramendiak eta Sofia Rodríguez, hurrenez hurren CAF eta Hyundai taldeetatik etorritakoak. Sopela Women's Team

teken ostean



© ELKAR KIROLAK

Olatz Agorria
(Bizkaia, 1996)



Enara López
(Bizkaia, 1997)



© ELKAR KIROLAK

Mireia Muñoz
(Bizkaia, 1998)



© RREC

Maialen Aramendia
(Nafarroa Garaia, 1999)

CAF taldeetik etorria. Isasi lege, pistak dabilen txirrindularia da. Halandaze, azkarra da esprintetan, Isasi lege.



© RREC

Sofía Rodríguez
(Valentzia, 1999)

Hyundai taldeetik etorria. Maila erdiko mendateetan ondo moldatzen da eta helmugan oso azkarra da lege.

Bioracer-Elmetetik etorritako txirrindulariak. Hiruren ezaugarriak ezezagunak dira, baina langile onak dira eta gazteak. Ihesaldiak sortu eta burutu ditzakete.

txirrindularitza-taldearen kolorea «hori mina izango da; aurten Sopela-Ugeraga taldeko txikiek izan dutena gora pasatuko dugu. Hala, herriko banderaren koloreak hartuko ditugu», Ramosek aurreratu duenez. Sopelako Udalgaz batera, beste babesle batzuk izango ditu taldeak. Hala, «mantendu egingo dira Bizkaia Bizkaialde Fundazioa eta Eusko Jaurlaritza, eta, gainera, beste bat izango da», baina, oraindino, hori zein den publiko ez egitea gurago du Ugeragak.

Maila bat beherago

Emilio Ramosen esanetan, Sopela taldea «bukatu berri den denboraldi honetako taldea baino maila bat beherago ikusten dut, logikoki. Taldeak zituen hiru bandera-ontziak [Eider Merino, Alicia González eta Alba Teruel] eroan dizkirate, Movistarrek eraman ditu. Maila bat beherago geratu da, baina neska gazteak dira eta eurakaz egingo dugu behar». Hortaz, ziurtatu du denboraldi berrian ahaleginduko direla «Euskaldun sariketa irabazten eta Espainiako Kopan sartzen paper ona egiteko. Bestalde, atzerriera aterako gara hainbat lasterketan lehiatzera, aurretik egin dugun lege», taldekide berriak formatzeko: «ikus dezatela kanpoan zelan egiten den txirrindularitza, maila hori apurka-apurka har dezaten», gaineratu du Ugeragako presidenteak.

Hala, itxaropenak aurreko denboraldiaren antzekoak ditu Ramosek. «Aurreko taldeak ere oso zail zuelako nazioarteko lasterketak irabaztea. Dena

den, orain arte aurreneko hamarren artean geratu izan zaizkit beti batzuk, eta orain ez dut uste egingo dutenik, ikasteko baitaude gutxienez lehenengo urte honetan», ohartarazi du Sopelako kirol-elkartearen zuzendariak.

Movistarrek eroan ditu taldeak zituen «hiru bandera-ontziak»: Eider Merino, Alicia González eta Alba Teruel.

Halere, Ramosen arabera, Movistarren emakumezko adarra sortu eta Murias eta Bizkaia-Durangoen arteko batzearen ostean, euskal emakumezkoen txirrindularitzako eliteak «berdin segitzen du. Movistarrek hartu ditu Espainiako sei lasterkaririk onenak. Hala, hemen korrika egingo dutenean beste denei bidea moztuko diete, baina espero dezagun batez ere kanpoan lehiatzea!», desiratu du. «Hemen geratuko garenontzat Murias-Bizkaia eta gure artean borrokatzea izango da», laburtu du egoera.

Bertokoen artean ez du horrenbesteko aldaketarik ikusten, «aipatutako seiak kenduta, beste denak baditugulako Murias-Bizkaia eta gure artean».

Movistarrek eskaintza ekonomiko handiagoak egin baditu ere, horrelako garaiak ez dira heldu Uri-

be Kostara. Sopelan «oso kontzienteak gara» hemen dagoen egoeraz, azaldu du Ugeragakoak: «oinak lurrean ditugu eta gastuak iazko berdinak izango dira. Ez gara hortik aterako, guk ezin baitugu gastatu ez daukaguna». Merino, González eta Teruel taldean mantentzea ekonomikoki «ezinezkoa» egin zaie: «ezin genuen Movistarrek eskainitakoa parekatu».

Sopela Ugeragan aldaketak

Taldea berrizteko eta harrobiko kideak igotzeko aukera eman die gertatutakoak. Hala, Sara Martíni eta Esther Cañeteri «aukera eman diegu goian egoteko». Horrek ere eragin du klubaren organigraman. Izan ere, Sopela-Ugeraga «bakarrik geratuko da kadete-eta gazte-kategoriakaz; bertatik jauzia emango da zuzenean UCI taldera. Hala, desagertu da 23 urtez azpiko maila, daborduko mantentzea zentzurik ez duelako», Ramosen arabera.

Bestalde, Sopelak aterpea eman die Berango, Leioa eta Erandioko udalek sustatutako Elkar Kiro-lak txirrindularitza-eskolaren Bioracer-Elmet talde-tik irtendako hiru kideri: Olatz Agorriari, Enara López eta Mireia Muñoz. Hori, baina, ez da izan klub bien arteko akordio baten emaitza, Ramosek azaldu duenez. «Fitxatu berri ditut, zuzenean eurekaz berba eginda. Entzun nuen ez zutela 23 urtez azpiko talderik atera behar; hala, zuzenean hiruekin berba egin nuen eta hirurak pozarren etorri dira nigaz».

Info+: Facebook.com/Sopela/team



Mundukatuak

Eneko Garcia Poza algortarra

«Minostarren jainkosak Marigaz harremana du»

Aurreko urteko azaroan joan zen Greziara Eneko Garcia Poza algortarra. Garai hura hone-larikarri du akordura berak: «neure begiakaz ezagutu gura nuen zelako egoerak ematen diren krisi ekonomikoak gogorrako jo dituen lekuetan». Bere ustez, krisiaren ondorioz, «ezker instituzionala argi baliogabetu da, herritarren beharrak asetzeko tresna gisa». Hala, «errefuxiatu-krisiaren arazora hurreratu, ezagutu eta lagundu gura nuen, eta, batez ere, hizkuntza ezezaguneko herrialdea izanda, senidetan-harremanak erraz emango zirela sumatzen nuelako erabaki nuen Greziara joatea». Helburu horregaz, «Bilbo inguruan egiten nembilen bizitza amaitu, furgoneta bat erosi, ohea eraiki, agurrak egin, eta errepidera aterantz nintzen, Grezia helmuga». Tesalonikan egon zen lehenengo; Greziako bigarren hiririk handienean, joan den

uztailera arte, «errefuxiatuei eta atzeritarrei laguntza eskaintzeko proiektuetan murgilduta». Ostean, lagun greziarrek gomendatuta, Kreta irlako Heraklion hiriburura lekuz aldatu zen. Batzuek «erakargarria» dela esan

“Kulturaren eta historiaren zutarrak oso sakonak dira, hemen, Kretan”

zioten; beste batzuek, oster, «Kreta Greziako Euskal Herria dela», azpimarratu zuten. Edozelan ere, «bertoko kulturaren eta historiaren zutarrak oso sakonak» direla nabarmendu du Garciak. Nekazaritza ekologikoko eta komunaleko proiektu kooperatiboak ezagutzen dabil gaur egun, greziara ikasten dabilen artean. Heraklionen

bisitatzeko leku asko dago: harresi eta gotorleku veneziarrak (Heraklionen inoizko setiorik luzeena egin zuten otomandarrek veneziarren aurka, 21 urtez, XVII. mendean); portua; eliza eta iturri veneziarrak eta bizantziarrak; eta Knossosko jauregia, minostar zibilizazioaren gune nagusia, hiritik 5 kilometrora. Algortarraren esanetan, «dirudien minostarrek otoitz egiten zioten jainkosak gure euskal Marigaz harremana dauka. Hemendik ostendurik dabil Minotauraren labirintoa...». Uribekostarrak ziurtatu duenez, «leku liluragarriak beteta» dago Grezia osoa: Halkidiki penintsula, Olinpo, Peloponesoko herritxo galduak, Psiloritis mendiko haitzuloak... Halere, harriak baino jendarteak ezagutu gura duenak webgune bi erabil ditzake gaurkotatzen jarraitu eta «edozein hitzordu politiko eta kultural aurkitzeko».

info+: Kinimotorama.net / Athens.indymedia.org

NOR DA

Nongoa

Algortan hazi zen, eta Uribe Kostakoa sentitzen da.

Adina

27 urte.

Zertan dabil

Nekazaritza ekologikoko eta komunaleko zenbait proiektu ezagutzen dabil, esperientzatzeko eta lurralde eta kultura ezezagun batean bere burua kokatzeko.

Ikasketak

Gizarte Hezkuntza eta Sexologia.

Noiz arte Kretan?

Greziara ikasi arte.

NON DAGO



Lurraldea

Heleniar Errepublikak (Grezia).

Azalera

131.957 km².

Hiria

Heraklion.

Biztanleria

140.730 pertsona.

Hizkuntzak

Greziara da hizkuntza ofiziala eta jende gehienak erabiltzen duena. Halere, Kretan badaukate bertoko dialektoa, eta beste lurralde batzuetan ere bai. Gainera, Grezian aspaldidanik bizi dira beste komunitate batzuk (biztanleriaren %2 eskas); haiek batzuek hizkuntzari eutsi diote: turkiarrek, mazedoniarrek, albaniarrek eta armeniarrek. Horrez gainera, badira eslaviarrak, eta persiarrak, besteak beste.

Dirua

Euroa.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua